


# puntuua

A close-up portrait of Joseba Asiron, a middle-aged man with grey hair and blue eyes, wearing a dark jacket over a white shirt. He is looking directly at the camera with a slight smile.

JOSEBA  
ASIRON,  
HISTORIALARIA  
ETA IRUÑEKO  
ALKATE OHIA

**"ASKOTAN  
DIOT EDOZEIN  
ETSAI  
IRUDITZEN  
ZAIZULA  
TXARRA, UPN  
EZAGUTZEN  
DUZUN ARTE"**



## PUNTUA 225

2020-02-07 EGUBAKOITZA

Azaleko argazkia:  
Xabier Urzalai.

### Aurkibidea

- 4 **Bat-batean** Goiatz Labandibar
- 6 **Irudiz** Egurra eskuz mozten trebe
- 8 **Mundutik**  
Grezia: 'Platia', lurralde libre bakarra
- 10 **Erreportajea** Irratia entzuteko  
ohiturak aldatu egin dira
- 20 **Elkarrizketa** Joseba Asiron,  
historialaria eta Iruñeko alkate ohia
- 24 **Osasuna** Disortografia
- 26 **Kirola**  
Eskalada Tokioko Olinpiar Jokoetan
- 28 **Adituen esanetan**  
Baratzea, lorategi
- 30 **Otorduan** Maialde jatekoa:  
etxeko postre ugari
- 32 **Moda** Praka zango-estuez harago
- 34 **Motorra** Kozinatu osteko  
olioa, erregai?
- 36 **Gure artistak** Ana Arregi oñatiarra
- 38 **Kultura**  
Pantxoia eta Ugo Carrere musikariak
- 40 **Liburu artean** Erakuslelhoan
- 42 **Gure altxorrak** Arantzazu:  
Santutegiko beirateak
- 45 **Gadgetmania**
- 46 **Handitzen, handitzen** *Plazan*  
*Bazan*
- 47 **Jaioberriak**

### IRITZIA

- 3 **Nire txanda** Iker Badiola Etxaburu  
*Berriro gertatu zait*
- 16 **Hainbat aburu** Inaxio Garro  
*Txina puntako kontuak*
- 16 **Eztabaida**  
Irakurketa, geroz eta distraituago
- 17 **Xixili** Helena Azkarragarauriz
- 17 **Errematea** Irati Itziar  
*Irribarre oroiuak*
- 18 **Talaitatik** Rafa Sbxez Muxika  
*'Errelato'-aren jabeak*
- 44 **Komunikazioa** Ander Zubizarreta  
*Hor egon izan da beti*

# puntua

goiena<sup>RR</sup>  
KOMUNIKAZIO TALDEA  
TOKIKOM

**Argitaratzailea**  
Goiena Komunikazio Taldea  
Kooparatiba Elkartea  
Otalora Lizentziaduna 31  
20500 ARRASATE

**Lehendakaria**  
Aitor Izagirre  
**Zuzendari nagusia**  
Iban Arantzabal  
**Zuzendaria**  
Eneko Azkarate  
**Erredaktore burua**  
Monika Belastegi  
**Diseinu arduraduna**  
Iñaki Iturbe

**Hizkuntza arduraduna**  
Sergio Azkarate  
**Publizitate arduraduna**  
Mireia Larrañaga  
**Kluba eta banaketa**  
Igone Osinaga  
**Maketazioa**  
Imanol Soriano,  
Aitor Lagoma  
Amaia Martinez de Arenaza,  
Maite Igartua  
**Publizitatea**  
Mireia Larrañaga, Ziortza  
Martin, Amaia Mundiñano

**Administrazioa**  
Agurtzane Gaintzarain,  
Ane Berezibar, Iratxe Bengoa  
**EGOITZA NAGUSIA**  
Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
132 posta-kubxa  
Tel.: 943 25 05 05  
berriak@goiena.eus

**PUBLIZITATEA**  
Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
Tel.: 943 25 05 05  
publi@goiena.eus

**HARPIDETZA**  
Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
Tel.: 943 25 05 05  
harpidetza@goiena.eus

**Lege Gordailua:**  
SS-1509-2014  
**ISSN:** 2443-9738  
**Tirada:** 4.100 ale

**Inprimategia:**  
Gertu Komunikaziobide SL

PUNTUAK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.



GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak  
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia

# Berriro gertatu zait



IKER BADIOLA ETXABURU

**E**san ohi da gizakia dela bi aldiz harri berean tupust egiten duen animalia bakarra. Ba, niri ere berriro gertatu zait. Mugikorra lurrera erori eta, inolako babesik ez zuenez, hondatu egin zitzaidan. Ez zen lehenengoko aldia: aurreko baten ere berdina pasatu zitzaidan; konpondu ondoren, ez nion jarri babesik, eta horrela errepikatu da kontua. Aurreko erruetatik ikasten ez bada, hori gertatzen da. Konpontzera eraman nuen eta hamar egun inguruan konponduko zutela esan zidaten. Bitartean, beste zahar bat hartu nuen, baina ez zeukan Internetik. Hasieran, arraro egin zitzaidan une oro mezurik ez jasotzea, baina, poliki-poliki, ohitzen joan nintzen. Badakizue, gauza *onera* erraz ohitzen da gizakia. Lehengo usadioak alde batera utzi eta denbora gehiago neukan gauza probetxugarriagoak egiteko. Ohetik jaiki eta ez neukan zertan mugikorra begiratu, oraindik begi biak zabaldu baino lehen. Autobusaren zain nengoenean, lasai asko egon nintekeen nire irudimenean nabigatzen, sarean murgildu gabe, eta garrantzitsuena: pertsonekin hitz egiten nuenean, aurpegira begiratzen nien, adi-adi, beste inolako distraziorik gabe. Nire bizi-kalitatea guztiz hobetu zen. Baina egun baten, semea etorri zitzaidan esanez futboleko gurasoen Whatsapp taldean mezu garrantzitsu bat jarri zutela eta ea mugikorra konponduta nuen. A zer-nolako drama: gure familia sistematik kanpo gelditu zen. Gizarteak baztertzeko arriskuan geunden. Nahi izanda ere ezin nintzen telefono *adimentsu* –edo *adimen lapur*– gabe bizi.

Zentzu berean jarraiturik, gure familian Errege egunean pasatu zen pasadizo bat datorkit burura, honekin zerikusia duelakoan. Gertaera bat tarteko, nire aitak nire anaiaren etxean lo egin behar izan zuen Errege bezperan, bere bilobak jakin gabe. Hurrengo egunean, nire anaiaren semeak, hau da, nire ilobak, aita ita ikusi zuenean, Gabonetako zuhaitz azpian Erregeek utzi zioten jostailuei kasurik egin barik, espero ez zuen aitaitarengana jo zuen, poztasun keinu eta algara artean. Argi eta garbi, gizakiak gizakiaren kontaktu zuzena behar du, inolako gailu eta bitartekorik gabe.

Post-data: Eta ahaztu egin zitzaidan esatea. Badaezpada ere, konpondu egin nuen mugikorra. ■■■

**GIZAKIAK GIZAKIAREN  
KONTAKTU ZUZENA  
BEHAR DU, INOLAKO  
GAILU ETA  
BITARTEKORIK GABE**

# Goiatz Labandibar

---

## TXOMIN MADINA

ARGAZKIA: IÑAKI ZAPIRAIN

---

*Geltokiak edo helduta entzuteko abestiak eta Fotogramak* liburuen ostean, *Hori zen dena* da oiartzuarraren hirugarren lana.

**15 + 1 narraziok osatzen dute liburua. 16 ez da, bada, zorte txarra ematen duen zenbaki bat...**

Arrazoa ez da hori, baizik eta forma aldetik hamabost testu ohikoagoak direlako eta liburuari amaiera ematen dion hamaseigarrenak egitura bereziagoa duelako; askok pentsatuko dute ipuin bat ere ez dela.

**Harremanak dira liburuko narrazioek elkarren artean duten harremana.** Bai, baina mota ezberdinetakoak. Harremanak esatean, bikote-harremanak datozkigu burura, baina afektibotasuna ez da bikote kontua bakarrik: ama baten eta alaba baten artekoa izan daiteke, laguneren artekoa... Liburuan horiek ere sartzen dira.

**"Bizitza da fikziorik onena", dio Twitterreko zure deskribapenak. Zuri gertatutako zenbat daude zure idatzietan?** Ez da autofikzio bat, ezta autobiografia bat ere; baina egia da idazleok beti hartzen ditugula gure, inguruko eta hain ingurukoak ez direnen bizitzetatik entzuten eta ikusten ditugun gauzak, gertaerak eta esaldiak. Nire inguruko jendeak esaten du liburu honetan ni ikusi nautela.

**Zer izan da irakurle batek liburuaz esan dizun gauzarik politena?** Boteprontoan, ez datorkit ezer... Nigana hurbildu diren gehienak gauza politak esatera etorri izan dira. Esan didate barre asko egin dutela, erabiltzen dudana ironia tonuarekin asko dibertitu direla. Horrelako gauzak entzutea beti da gustagarria.

**Idatzi eskuz, eta gero, garbira; ala zuzenean ordenagailuan?** Zuzenean ordenagailuan. Garai batean, bai idazten nuen eskuz eta gero idazmakinan pasa, baina, ordenagailua dudanetik, praktikoagoa egiten zait zuzenean bertan idaztea. Idazteko orduan ez dut maniarik; eroso sentitzen naizen edozein tokitan idatzi dezaket, baita eguneko edozein momentutan ere.

**Zure lagunek zenbat irakurtzen dute?** Denetik dut inguruan: batzuek asko eta beste batzuek, ezer ez. Eta baditut lagun asko behin heldutakoan hasi direnak irakurtzen: gazteagoak ginenean ez zuten ohiturarik, baina 25 urterekin ikasi dute literaturaz gozatzen. Egia da batetik eta bestetik nahi gabe ere irakurzaletasuna duen jendearekin elkartzen zarela, baina ez da zerbait orokorra.

**Donostia 2016an hartu zenuen parte, Polonian egonaldi artistikoa eginda. Zer geratu da Hiriburutzatik?** Oso esperientzia polita izan zen pertsonalki, bai Poloniara joatea, eta baita gero Donostiara etorritako poloniarrek ezagutzea ere. Egindako harreman horiekin geratzen naiz; badut oraindik gehien ibilbidearen berri. Orokorrean, baina, pena da edozein sortzailerendako hain baliagarriak diren mugikortasun programa horiek bertan behera geratu izana; baina horiek jarraipena izateko inbertsio ekonomiko eta humanoak egin behar dira, eta bigarren mailan geratu ziren. Badut jendeak ahaztu izan duen sentsazioa.

**Lehen liburua 2013an, bigarrena 2016an eta hirugarrena 2019an. Laugarrena, 2022rako?** Hala izan behar duela ematen du; kasualitatez izan arren, badirudi hiru urteko epeetan mugitzen naizela. Ez dakit laugarrenik egongo den ere... Lehen liburua Igartzeta bekari esker atera nuen, bazuen epe-muga bat, eta nahiko estresatuta bizi izan nuen bukaerako zatia; pentsatzen nuen ez nuela berriz beste liburuak aterako! Gerora, gauzak lasaitu, eta bigarrena etorri zen. Laugarrena badator, ondo, eta bestela, ez da ezer gertatzen.

**Kazetari ibili zinen garaian, zeini zer galdetzeko gogoz geratu zinen?** *Oarsoaldeko Hitza*-n egin nuen lan, eta oso tokiko gaiak lantzen genituen. Serio inoiz saiatu ez ginen arren, lankide batekin komentatzen genuen Paco Rabanne elkarriketatu behar genuela noizbait.

**Goiz bat dut Oiartzun ezagutzeko. Zein da plana?** Ere mu handia du, eta gida turistikoetan, plazara eta Arditurriko meategietara joatea agertuko zaizu. Baina bestelako txoko polit asko ditu; esaterako, historia oso ederra duen Beloagako gatzelua. ■■■







## Egurra eskuz mozten trebe

**ARGAZKIA:** IMANOL SORIANO

**TESTUA:** MAIALEN REGUEIRO

Debagoieneko Kirol Sarien ekitaldian, dagoeneko 30 urte dituen eta Gipuzkoa mailan talde handiena duen Bergarako Shotokan karate taldeak ikuskizun bikoitza eskaini zuen, Seminarixoan. Sarrera gisa, hainbat kidek kata erakustaldia egin zuten, borroka baterako erabiltzen diren teknikak simulatuta. Ekitaldiari amaiera emateko, berriz, Bergarako karate taldeak oiholtza hartu zuen, eta, kasu horretan, Joxean Iñarra izan zen protagonistista nagusia. Izan ere, katanarekin hainbat ebakitze egin zituen, eta, amaitzeko, eskuak erabiltz egurrak moztu zituen, irudian ikusten denez. Andoni Mujika Shotokaneko kideak azaldu duenez, Iñarrak Debagoieneko gerriko maila handiena du, eta, berak egin zituen ariketak egiteko, arnasketa zehatz bat eta kontzentrazioa ezinbestekoak dira. ■

# 'Platia', lurralde libre bakarra

GREZIA



**ANE LOPEZ** GREZIAN BIZI DEN

ARRASATEARRA

ARGAZKIAK: A.L.

Atenas hiriko erdialdean dago Exarchia auzoa, eta Exarchiaren erdialdean dago *Platia* –plaza–. Auzo hau ez da besteak bezalakoa eta plaza hau ere ezohikoa da. Interneten, telebistan eta blogetan, titular hauek irakurtzen dira: *Anarkistek kontrolatutako auzoa, Polizia ez da sartzen, Kale borroka, Etxe okupak, Graffitiak, Atzerritarrak*. Hauteskunde kanpainaren sinboloa zera izan zen: presidentegaia Exarchiako mendixkan, zabor bila. Eslogana: *Exarchia garbituko dugu*. Hauteskundeak irabazi zituen aurreko udan eta handik hona gauzak nahikotxo aldatu dira.

*Okupa*-k desalojatu dituzte –gure etxea izan zen lehenetarikoa–, eta orain, polizia barrura sartu da. Han daude kamioiak eta, plazatik oso gertu, beti egoten da istiluen aurkako polizia talde bat, gehienetan kafea edaten edo mugikorrari begira, Facebooken edo. Egunerokotasunak, izan ere, telebistan ikusten denaren beste itxura bat dauka.



*Platia*, Atenasko Exarchia auzoan.

Izkinako tabernan daukagu, goizean goizetik, greziar gizonen kuadrilla hori. *Tavli*-an jolasten ari ez direnean, han ibiltzen dira, agoran bezala, krisia nola gainditu beharko litzatekeen eztabaidatzen edo. Ondoan, gazte bat eserita, familiarekin Skype bidez hitz egiten. Haren ondoan, *Vula*, zerbeza esku batean eta periodikoa bestean –erdi alkoholikoa den emakume bat da *Vula*, auzotarra, beti han egoten

**EXARCHIA AUZOA ETA 'PLATIA' EZ DIRA BESTE AUZO ETA PLAZAK BEZALAKOAK, EZOHIKOAK DIRA BIAK**

dena–. Guztiak daude *platia*-ri begira, ikuskizunaren zain.

**Asanbladak unibertsitatean**  
Unibertsitate politeknikora bidera doazen ikasleak ere plazatik pasatzen dira, haien karpeta handiekin, planoz beteta. Unibertsitate politeknikoa Exarchiako ikonoa da. 1973an han sortutako ikasle errebueltak eta ondorengo errepresioak diktaduraren, hots, Koronelenen diktaduraren, bukaera ekarri zuen, eta gerotzik, Politeknikoan egiten dira auzoko asanbladak, okupatuta dagoen zati batean –bigarren solairua etxebizitza ere bada–. Han auzoko gatazkari buruz hitz egiten dute eta kartelak egiten dituzte, hiri guztian zehar jartzeko. Baina benetako gatazka hortik gertu dago: *Platia*-n, hain zuzen ere. Han dago benetako erresistentzia, eustea edo irautea besterik ez dutenek erresistentzia dutelako bizimodu.

*Platia*-koek ez dute jakingo *gentrification* hitza zer den, baina ikusten dute geroz eta turista gehiago daudela auzoan eta lehen hain merke alokatu zitzaketan etxe horiek orain AirBnB apartamentuak direla. Gobernua aldatu





Atenasko Exarchia auzoaren irudi panoramikoa.

edo ez, haien egoera gutxi aldatuko dela ere badakite. Itxoiten jarraituko dute, Europak erabaki arte pertsona diren ala ez, hemen gelditzeko baimena daukaten ala ez. Momentu hori heldu arte, *Platia*-n ematen dituzte egunak, asteak, urteak. Izan ere, nora joan ez daukanak *Platia*-n dauka etxea.

#### 'Platia' guztiona da

Antzinako Grezian bezala, gaur egun ere kultura truke handia dago hemen. Niretzako, Europaren bukaera da; nire laguntzako, ordea, Europarako sarrera. Ekialdea edo mendebaldea ote da hau? Hau munduaren zilborra da: *Platia*. Gutxi gorabehera,

lekuak hartuta daude. Atzealdean Kongoko batzuk esertzen dira, greziar batzuekin batera. Bankuan beti daude Poloniako bi agure. Aljeriarrek eta marokoarrek hango izkina daukate eta irandarrek erdiko aldea hartuta daukate. Beste aldean, bigarren belaunaldiko albaniarrek daude. Gelditzen den anarkisten arrasto bakarra plaza dekoratzen duten kolore gorri eta beltza dira.

### **NORA JOAN EZ DAUKANAK 'PLATIAN'-N DAUKA ETXEA; HANGO SENTIMENDUAK UNIBERTSALAK DIRA**

Gutxitan pasatzen dira hemendik. Hilabetean behin edo, kartelak aldatzera. Ondoko kale batean kurduak ibiltzen dira, kurduen gauzak egiten; normalean, bileretan edo kebaba jaten. Baina, egia esan, denak daude leku batetik bestera bueltaka. Lehen boluntario izandako batzuk ere hemen gaude, ikusle baino gehiago, horren parte izan nahi dugunok. Heltzerakoan, jendea agurtzen hasten da: "*Salam, Ane, ti kanis? Everything ok?*". Exarchiako hizkuntza ez da bateratua, baina oso ondo ulertzen dugu elkar. Sentimenduak unibertsalak dira. Mina eta poza guztiona da: *Platia* guztiona da. ■■■

# Irratia entzuteko ohiturak aldatu egin dira

Otsailaren 13an, Irratiaren Munduko Eguna ospatuko da –Unescok hala izendatuta–. XIX. mende amaieran sortutako hedabideak 80ko hamarkadan izan zuen loraldia Euskal Herrian. Euskararen normalizazioan erreferente izan dira hainbat herritan. Debagoienean, hiru irrati daude uhinetan gaur egun.

Testua: **Arantzazu Ezkibel Galdos**. Argazkiak: **A.E. eta elkarrizketatuek bidalitakoak**.

Goian, Aranburuzabala eta Bikuña; erdian, Txapa Irratikoak programazioa aurkezten; eta behean, Losada eta Urkiola.

**G**ertukoa izatea eta azkartasuna dira irratiek dituzten bi indargune garrantzitsu. Hain zuzen, irratia medio moduan duen garrantzia hurbiltasuna da. Esan daiteke medio intimoena dela.

XIX. mende amaieran sortu zen irratia –uhin elektromagnetikoen teoria formulatu zuten–; eta XX. mende hasieran, Guillermo Marconik Atlantikoaren beste aldera bidali zituen lehen seinaleak –Nikola Teslaren patentea erabilia–. Orduetik, bilakaera handia izan du irratigintzak. Mundu guztian zehar zabaldu zen; eta, Unescok hala izendatuta, 2011z geroztik Irratiaren Munduko Eguna ospatzen da otsailaren 13an. Euskal irratigintzari dagokionez, 80ko hamarkadan sortu ziren irrati gehienak, eta sekulako arrakasta izan zuten. "Orduko komunikabide nagusia irratia zen", azaldu du MUKO irakasle Eneko Bidegainek. Eta orduetik hona bilakaera handia izan dutela gaineratu du: "Esango nuke azken hamarkadetan irratia profesionalizatu egin dela eta kalitatean irabazi duela. Horrez gain, dibertsifikatu ere egin da". Bilakaera hori azken urteetan egonkortu egin dela dio Bidegainek: "Produkzioa hor dago, eta esango nuke kontsumo ohiturak direla aldatu direnak. Irratia entzuten da; batez ere, autoan entzuten dela esango nuke, ez hainbeste etxean".

## Internet eta teknologia berriak

Irratia kontsumitzeko ohituretan gertatu da aldaketa handiena. Garai batean, etxe guztietako sukaldeetan egoten zen irratia piztuta;



## "Kale mailan lanean jarraitzen dugu"

**MIREN URKIOLA** OÑATI IRRATIKO ESATARIA

1991n sortu zuten Oñati Irratia (FM 107.4), eta, ordutik, Miren Urkiolaren ahotsa da erreferente. Kultura etxean izan zuten lehenengo estudioa; 2000. urteaz geroztik, Olakuako dorrean dago. Aratz Losadak lantzen du kirol tartea.

### **Nola egokitu da irratia teknologia berrietara?**

Teknologia berriek sekulako laguntza ematen dute. Pentsa, hasi nintzenean, kasetea eta zinta irekia erabiltzen genituen; orain, askoz samurragoa da *kuña* bat jarri eta kentzea. Hala ere, nabarmendu behar dut kazetari lana berdin-berdin egin behar dela: albisteak



bilatu, kontrastatu... Kale mailan lanean gabiltza, eta hori ez da aldatu. Esan behar dut kritikoa ere banaizela teknologia berriekin: izugarrizko abiadura markatzen dute albisteetan. Nik albiste bat landu orduko, sare

sozialetan zabaldu da. Eta zabaldutako hori galdetu eta kontrastatu bakoa izaten da; horrek badu bere arriskua.

### **Oñati Irratiak kolaboratzaile talde handia izan du.**

Bai; momentu honetan ez dugu kolaboratzaile finkorik, baina egon da jendea astero etorri dena, edo hamabost egunean behin... Eta, saiorik ez izan arren, informatzaile sarea badut, informazioa helarazten didatenak.

### **Zein da udal irratiazen erronka?**

Egunerokoari zuku ateratzen jarraitzea, eta garaiz iristea. Gainera, errepikatzen zaren sentsazioa ez izateko, eta ni neu ere motibatzeke, kutsu berri bat ematea, erreferentzia iturri izaten jarraitzeke.

## "Euskal kultura bultzatu beharko genuke"

**AITZIBER ARANBURUZABALA** ARRASATE IRRATIKO ESATARIA

FMko 107.7 frekuentzian eta *Goiena.eus* atarian entzun daiteke Arrasate Irratia. Aitziber Aranburuzabala eta Mireia Bikuña dira irratiko ahots nagusiak.

### **Lan egiteko modua aldatu zuen digitalizazioak.**

Asko aldatu zen irratia Goienara etorri zenean; aldaketa handia gertatu zen, eta etengabe aldatzen dabil, gainera. Digitalizazioaz gain, lantaldearen parte izatea etorri zen. Orduantxe etorri ziren ordenagailuak; ordura arte, *minidisk* eta CDak genituen.

### **Zein da Arrasate Irratiaren eginbeharra?**



Arrasateko albisteak, gertaerak, kontaketa ditugu oinarrian, baina baita bailarakoak ere. Herriko eta eskualdeko gertakarien kontaketa egiten dugu, bertako elkarteekin elkarlanean, euren berri emanez.

### **Teknologia berriek lagundu egiten dute?**

Teknologiak laguntzen du gauza askotan; kanpoan bizi denarekin harremanetan jartzeko, adibidez, harengana heltzeko modua da, eta sare sozialen bitartez ere samurragoa izaten da. Lehen, ahoz ahozkoa zen gehiago.

### **Udal irratia izanda, euskal kultura bultzatu beharko litzateke?**

Bai; euskarazko irratia izan beharko lirateke euskal kulturaren bultzatzaileak. Nik, adibidez, hasieratik egiten dut herriko euskarari; saiatzen naiz horri garrantzia ematen; batez ere, elkarrizketetan. Hori da tokiko irratiek izan beharko luketen indargune nagusietako bat, besteak beste.

hala, orain, autoan, ordenagailuan, sakelakoan... entzun daiteke irratia. Teknologia berriek ekarri duten aldaketa ez da bakarrik irratia entzuteko ohituretan igarri; irratia bera egiteko ere samurtasunak ekarri ditu teknologia berriak. "Garai batean, kasetearekin ibiltzen ginen; gaur egun, ordenagailu bitartez jartzen dugu musika", azaldu du Oñati Irratiko esatari Miren Urkiolak.

"Txapa Irratiaren kasuan, ordenagailua sartu zenean hasi ginen irratia emititzen 24 orduz, urteko egun guztietan. Etxetik bertatik egin dezakezu irratsaio bat, eta baita munduko beste puntatik ere... abantailak ekarri ditu", azaldu dute Txapa Irratiko kideek.

### Irratiek dituzten mehatxuak

Gaur egun irratia dituen mehatxuen artean musika entzuteko plataformak daude, Bidegainen ustez: "Lehen, musika entzuteko irratia piztu behar izaten zen; egun, plataforma horien bitartez ez dago irratia piztu beharrik musika entzuteko".

Publikoari dagokionez, Bidegainen ustez, irratia badu publiko fidela; baina publiko hori adinean aurrera doazenak izango lirateke; ez hainbeste gazteak. Hala ere, hark dio irratia jakin duela egungo teknologietara egokitzen: "Egun, esaterako, podcast moduan entzun daitezke saioak". Urkiolaren esanetan, etxean irratia entzun izan duenak ohitura hartuko du irratia pizteko: "Hala ere, gazteei beste bide batzuk eskaini behar zaizkie. Internet bitartez entzuten baldin badute irratia, hori eskaini behar zaie".

## 80KO HAMARKADAN SORTU ZIREN EUSKAL IRRATI GEHIENAK, EUSKAL KULTURAREN INGURUAN

### IRRATIAK DITUEN MEHATXUEN ARTEAN MUSIKA ENTZUTEKO PLATAFORMAK DAUDE GAUR EGUN

## "Arrosa sarean egoteak parrila jantzia izatea ekarri du"

### TXAPA IRRATIA

Txapa Irratia 1984an sortu zuten orduko irratizale batzuek. Antena bat jarri zuten eta larunbatetan kalera irteten ziren irratsaioak egitera. Barrenkalean izan zuten lehenengo estudioa. Gerora, lau urteko geldiuera izan zuen Txapa Irratiak; eta 1989an, berriz hasi ziren martxan, Zabalotegin. 2006an, beste leku aldaketa bat izan zuten: kartzela zaharrera mugitu ziren, eta egun, han jarraitzen du Txapa Irratiak.

"Gaur egun, 30 lagun gabilta irratia inguruan, eta hamabost irratsaio



Txapa Irratia.

ekoizten ditugu", azaldu dute Txapa Irratiko kideek.

**Arrosa sareko kidea**  
Irratia ordenagailu bidez emititzen hasi zirenetik 24

orduko programazioa dutela azaldu dute: "Arrosa sareko kide gara; hor gaude 23 irratia. Ekoizten ditugun irratsaioak sarera igotzen ditugu, nahi duenak har dezan. Modu horretan, guk ere beste irratia batzuek ekoiztutakoa emititu ahal dugu". Txapa Irratiak Hala Bedi irratia magazinean emititzen du; eta horri Arrosa sareko programak gehituta "programazio-parrila jantzia" lortzen dutela diote. "Gainera, Arrosa sarearen bitartez, adibidez, *Zebrabidea* irratsaioa elkarlanean ekoizten dugu", azaldu dute.



Miren Urkiola esataria, Oñati Irratia kultura etxean zegoen garaian.

joerekin konektatuta egotea izango dela dio: "Irratien izaera bera izango da, albistegien eta magazinaren formatua ez da modaz pasako, ona baldin bada, gertukoa bada...". Tokiko irratien kasuan indargunea gertutasuna dela nabarmendu du: "Gertuko albisteak, gertukoen ahotsa entzutea... hori beti izaten da indargunea, hurbiltasun hori entzuleak baloratu egiten du"; eta, gainerako irratien kasuan, interes eta sakontasun handiko saio eta eztabaidak egitea izan beharko litzatekeela. Erronken kasuan, gehitu du, euskal irratien erronka handiena izan beharko litzatekeela euskal musikari eta euskal kulturari tokia egitea, "nahiz eta globalizazio aro honetan zaila izan. Oreak hori bilatzea izango litzateke erronka. Euskal Herriko irratiek ez badute originaltasun hori...".

### Bailarako irratia

Egun, hiru irradi daude bailaran: Arrasate Irratia, Bergarako Txapa Irratia eta Oñati Irratia. Izaera ezberdineko irratia dira. Arrasate

Irratia eta Oñati Irratia udal irratia dira; lehenengoa Goienak kudeatzen du eta bigarrena Udalak berak. Txapa Irratiaren izaera ezberdina da: irradi librea da. Bailaran egon izan dire beste irratia batzuk; esaterako, Arrasateko gaztetxean Itxungi Irratia izan zuten. "2009ko udaberrian, AGAKOko kide ginen batzuek irradi librea zabaltzeko ideia izan genuen. 2010eko irailaren 11n lehen Itxungi Rock jaialdiarekin hasi zen irratia martxan. 2015etik aurrera ez da emititzen", azaldu du Mikel Arregik. ■■■

### Podcasten arrakasta

Azken urteetan, arrakasta lortu dute podcast izenez ezagunak diren audio artxiboek. "Garai batean, izan genuen momentu bat dena bideoa zena, eta horrek eskatzen zuen azpiegitura lana. Bestalde, entzute hutsa samurragoa da, eta hori da podcastek eskaintzen dutena. Malgutasuna duen formatua da eta horrek eragiten du, besteak beste, etorkizuna izatea", dio Bidegainek. Irratiek *nahieran* zintzilikatutako programazioa dago, batetik; baina, bestalde, edonork grabatu eta sarera igotako audioak ere badaude. Adibidez, MUko ikasleek *Zuzeu* atarian zintzilikatu zituzten hamabi podcast; eta Aranzadi Ikastolak ere badu podcast saila bere atarian. "Irrati batekin lotu barik, irratsaio bat egiteko modua izan daiteke podcasta", dio Bidegainek.



goiena<sup>''</sup>

ADI!!

# GOIENA TELEBISTAK, KANAL ALDAKETA

**Goiena telebista kanalez aldatuko da otsailaren 12an.** Telebista antena bidez ikusten baduzu, zure komunitateko antenan egokitzapenak egin beharko dituzu. Jarri harremanetan zure antena-jartzailearekin.

Informazio gehiago: **943 25 05 05**.



**Jabeen erkidegoetan** antena-jartzaile batek egin behar du lan hori.  
**Famili bakarreko etxeetan**, berriz, berriro sintonizatu behar dira telebistak, kanalak ikusteko.

Dirulaguntzak eskatu ditzakezu: **[Televisiondigital.gob.es](http://Televisiondigital.gob.es)**.

Informazio gehiago **943 25 05 05**.

goiena<sup>''</sup>  
KOMUNIKAZIO TALDEA



INAXIO GARRO

# Txina puntako kontuak

**G**ehienetan, zaila egiten zaigu gurea ez den beste kultura bat ulertzea. Mundua edo bizitza ulertzeko, norberaren kultura modukorik ez dago: gainerakoak atzerakoia dira, edo zentzu gabeak.

Hala ere, ikaragarri aberasgarriak (izan) dira, eta hamaika dira jaso ahal izan ditugun irakasbideak. Oro har, ñabardurak ñabardura, hauek dira gaur egun munduan bizirik dauden kultura nagusiak: mendebaldekoa –hau da, geurea–, islamikoa, afrikarra eta, azkenik, ekialdekoa.

Txinatarren filosofiak du, segurutik, berezitasun nabarmenena. Berrogei bat mendetako historia izan arren, asko zor diogu kultura horri, oraindik gaur ere. Urrutian egote horrek exotismo puntua

eragin dio, Erdi Aroan Marco Polok egindako bidaiak erakusten duten moduan: bere mitologia, filosofia, musika eta artea.

Badira bai txinatarrek munduan. Guztira, 1.400 milioi pertsona inguru.

Ezin ukatu gure eskualdean bertan ere badaudela jatorri txinatarra duten hainbat herritar. Euren kulturari jarraituz, egunean 16 orduz egiten dute lan. Lanerako bizi dira, eta kalean apenas ikusten dugu txinatarrik. Baina hor

## MILIOIKA PERTSONA EUREN HERRITIK IRTEN EZINDA DAUDE, BELDURRAREN BELDURREZ

daude, txindurrien gisan beti lanean.

Hala ere, egunotan larri antzean dabilta Txinan bertan, koronabirus delakoa sortu denez geroztik. Horren eraginez, milioika pertsona euren herritik irten ezinda daude, beldurraren beldurrez eta aginduei jarraituz.

Antza denez, koronabirusa ugaztunetan eta hegaztietan gaixotasunak sortzen dituzten birus espezieen multzo bat omen da. Ez dago koronabirusek sortutako gaixotasunen aurka egiteko txertorik edo droga antibiralik; ohiko tratamendua sintomak arintzea izan ohi da.

Txina puntako kontuei dagokienez, behingoagatik hobeto muga gaintzen ez badute, guregana hurbiltzen hasi bada ere. ■■■

## EZTABAIDA

### Irakurketa, geroz eta distraituago?

Gehiago kostatzen zaigu irakurketari behar duen arreta eta denbora eskaintzea? Pazientzia kognitiboa deitzen diote horri eta Internetek eta mugikorrek omen dute errua.



MARIÑE JAUREGI  
IRAKURLEA

"Pertsona bakoitzaren araberakoa dela uste dut. Egia da mugikorrek denbora asko ematen dugula eta, beharbada, denbora hori gaizki kudeatu edo desprobatxatu egiten dugula. Pazientzia handiago beharko genuke, ez soilik irakurtzeko, bizitzarako".



JOSU BIAIN  
IKASLEA

"Liburuak irakurtzeko era asko aldatu da; gaur egun, liburu fisiko gutxi irakurtzen dira. Tabletak eta irakurgailuak erabiltzen dira liburuak irakurtzeko. Tresna hauek bestelako erabilpen asko dituzte eta oso zaila izaten da arreta osoa liburuan jartzea".



## XIXILI

HELENA AZKARRAGAUZAR



## ERREMATEA



IRATI ITZIAR

## Irribarre oroituak

**A**urrekoan lankideekin Donostiako danborradaren inguruan berriketan geundela, derrepentean aipatu nien txikitan Oñatiko Inauterietako danborradan *majorette* jantzita joan ginela lagunak.

Esan beharrik ez lankideek barre ederrak bota zituztela, orain 35 urte (35!) Inauterietan *majorette* jantzita imajinatu nindutenean. Aizue!

*Guapisimas* gindoazen!

Egun osoa pasatu nuen oroitzapen hori buruan nuela, baita irribarre ahoan ere –hau idazten nagoela ere hala nago, irribarrez–. Oroitzapen positibo eta pozgarriek ze erantzun fisiko atsegina duten harrigarria da.

Ze gutxi behar den pertsona bati momentu alaiak eta bereziak eskaini eta bizitza osorako oroitzapen positiboak emateko. Gutxi behar da, bai; imajinazioa eta ausardia, besterik ez.

Lotsa-lokalak –herrietako "zer esango dute?" mantra– gainditu eta, adibidez, umeentzako momentu alaiak sortu, nahita eta apropos.

Inauteriak gertu dauzkagu, aprobetxatu zuen ingurukoei betiko iraungo dieten irribarreak eskaintzeko, ez baitaukate preziorik. ■



**MADDI GURIDI**  
IKASLEA

"Egungo gizarteak pazientzia galdu duela iruditzen zait sarri, dena azkar eta begirada batean egin eta kontrolpean izan nahi dugu. Ez dakit Internet dagoen atzean edo mugikorrek duten errua, baina denbora pixka bat hartu eta pentsatu egin beharko genuke".



**MAIDER ARSUAGA**  
LIBURU ZALEA

"Norberaren araberakoa dela esango nuke, gure lehentasunak finkatu behar ditugu. Teknologiak onura asko ekarri dituen bezala, kontuz erabili beharrekoa da. Irakurketa azkarra egin ohi dugu gailuetan, baina liburu bat denboraz hartzeko zerbait da".

# Gutaz eta Euskal Herriko historiaz eta nortasunaz: 'errelato'-aren jabeak



RAFA STXEZ MUXIKA NABARRALDE FUNDAZIOKO KIDEA

**D**atozen asteotarako, hitzaldi sorta, erakusketa eta ikastaroak antolatu dituzte Oñatin eta Bergaran udalek eta Nabarralde, Olaso Dorrea fundazioaren laguntzarekin. Geuk gutaz jakitea helburu.

*Errelato*-a, kontakizuna, berba nonahi agertzen zaigu gaur egun. Historiarekin lotuta doa. Historia ez da, izanagatik ere, antzinako gertaeren zerrendatze huts hotza. Historia *errelato* baten orrialdeak dira. Aurrekoak hurrengoa baldintzatzen du eta hark datozenak, eta geu hor nonbaiten gaude. Normalean, ez da izaten *errelato* bat eta bakararra, geu ere ez garelako bat eta bakararra. Hala ere, *errelato* bat eta bakararra ofizial bihurtzeko joera izan ohi da beti. Ofiziala eta bakararra hezkuntzan, politikan, komunikabideetan; gizarteak moldatzeko abiapuntu eta jomuga izango den *errelato*-a.

**Giza talde** batek ez badu bere *errelato*-en kontrola, beste norbaitek bere interesetarako harrapatuko dio kontrol hori. Berdin dio euskal-nafarrok izan, Ameriketako nazio indigenak zein Afrikakoena edo Ekialde Hurbilekoena izan.

Kontrolatzaileak erabakiko ditu herri eta herritar horiei dagozkien eskubideak eta debekuak. Horregatik komunikabide, tertuliakide eta gizarte agente ezberdinen ahotan beti egotea *errelato*-a.

Oro har, euskal-nafarrok ez gara gure *errelato*-aren jabe. Garaitu, konkistatu eta asimilatu gaituztenen *errelato*-a inposatu eta onartu ere onartu dugu maiz baino maizago. Horrek autokazio eta autoestimua eskasera eraman gaitu. Ezgauza garelara sinestarazi arte. Euskal Herriko komunikabideetan "*a nivel nacional*" sarri entzuten denean, ez dira Bilbo, Baiona edo Iruñeko ezertaz ari, Espainiaz baizik. Gure paradigma, *errelato*-a, gaztelarra da. Gaztelar diot, bai; nazionalismo espainiarra, azken finean, supremazismo gaztelarra delako.

**Orain dela** urte gutxi San Telmo museoan, ospe handiz, *Los Galos/Galiarrak* erakusketa egin zen hartan Akitania osoa galiarra (zelta) zen. Euskaldunak ez ginen agertzen ez mapetan ezta azalpenetan ere. Erakusketara frantsesek eraman zuten *errelato*-a, baina zabaldu gu geu ari ginen zabaltzen.

Podcast eta Youtubeko historia, hizkuntzalaritza eta halako gaien saio gehienek arabera, Asturias, Leon, Gaztela eta Aragoi artean ez zegoen ezer. Dibulgatzaile gaztelarren *errelato*-an zeltibero eta godo besterik ez zen han, geroago frankoak aukeran. Euskal-nafarrok derrepentean agertu omen gara lur hauetan. Euri osteko perretxikoen modura. Perretxiko txarrak, pozoia barreiatzeko hazitakoak omen.

"**Mesedez, *errelato*-a** ez ukitu, ordea". Besteak beste, akademiko espainiar ofizialen *errelato*-an "*vasconización tardía*" delakoaren teoria nekeztar daitekeelako Iruña-Veleian aitzin-euskaraz egitearekin. Ondorioz, frogarkeometrikoki independenteak eta indusketa kontrolatuak baztertu beharko dira zenbait aurreiritzi eta teoria ez asaldatzearen. Zientziak epaitu beharko lukeena epaile batek epaituko du otsailean. Politikan sarri bezala, orain ere epaileek idatziko dute *errelato*-a.

Akordatzen naiz behin gaztelar batek oinarri gabeko nazionalismo anakronikoa leporatzen zidan solasaldi batean, euskaldunon estatua Nafarroa izan zela esan niola

nik. Hori eskolan sekula ere ez ziotela irakatsi erantzun zidan. Gaztelarrean *errelato*-a bakarra da; berau, baina, geure artean ere erabiltzen dugun bakarra izan ohi dena. Gainera, Nafarroako errege dinastia batzuk frantsesak izanik, bada, legitimitaterik ez zutela-edo aditzera eman zidan. Haren *errelato*-an koroa espainiarraren austriarrak eta borboitarrek gaztelar peto-petoak omen ziren; Cuencakoak-edo ote? Eta zorioneko gu Espainiako etxe handian onartu gaituztelako, guk astakirten ezjakinok horrela nahiko ez bagenu ere.

**Errelato-a "normalago"** egite aldera oraingo Iruñeko "udal normalago" honetan, Enrique Maya alkateak Iruñeko historia dibulgatzeko argitalpenetan "baskoien aipamena" murrizteari ekin dio. Navarra Suman Ciudadanosek duen ordezkariak ekarpen "normalagoa" egite aldera, euskara Iruñean mintzatu denik ere zalantzan jarri du. Berdin die inguruko toponimiak dioenak edota artxiboko eskutitzak, ezkontza testigantzak, hainbat kargutarako hizkuntza eskakizunak, interprete eta itzultzaile premiak eta antzeko dokumentazioa azaleratuz,

Jimeno Juriok, Peio Monteanok, Patxi Salaberriak... eta beste aditu askok Iruñea eta bere ingurua XX. mendera arte euskalduna izan dela frogatzeak. Euskara arrotza da hauen *errelato*-an. Euskara mintzatu den tokian, inoiz mintzatu bada, gauzen ordena "normalagatik" berez lasai-lasai isiltzen joan da gure aurrerabidearen mesedean. Supremazista gaztelarren *errelato*-an ez da sekula jazarpen, inposizio edo debekurik izan. Izan ere, ez da inoiz gatazkarik gertatu eta, ondorioz, "normaltasuna" haiek ezarritakoa izanik, kontra egiten ausartu dena gaizto intolerante fanatiko deklaratu dute. Iruñeko udal argitalpen horretan, ostera, Loiolako San Inazio militarra Iruñeko konkistan laguntzea nabarmenago goraiatzea egokiago jo dute. Hori ez omen da *vascongado*-en mutur sartzeara. *Errelato*-ari ondo baldin

## EUSKAL-NAFARROK DERREPENTEAN AGERTU OMEN GARA LUR HAUETAN

badatorkio, ez dago "*injerencia vasca*" arrotzik nonbait.

Xamartek bere *Etxera bidean* liburuan Aezkoako jendeak jasandako autoukazioa eta autoestimu falta adierazteko, bere amonarekin izandako 1980ko solasaldi labur hau kontatu du:

*-Amatxi, herrian erraten dadate zuk badakizula arront ongi uskaras elekatzen...*

*-j... Que no, que no sé...! ¿Pero qué dices, mi chico? Eztakit! Atzendu zaida!!- atsekabeturik oihukatu zidan, urduri, lotsaturik (beldurturik), soldaduen kuartela izan zen Txirrineko bordari so eginez.*

**Aezkoan bezala**, Euskal Herri osoan *errelato*-a inposatu nahi izan eta izango digute, horrek dakartzan ondorioekin. *Fake news*, intoxikazioa, soldatapeko komunikabide eta *tertuliano*-ak, akademiko ofizialak eta etxekaltek beti izan dira eta izango dira. Arazoa euren *errelato*-a ofizial bihurtzetik eta gure onartzetik eratoritzen da. *Errelato*-aren bertsioak ezagutzean datza gakoa. Eta horretarako erakusketa, hitzaldi eta ikastaroak: geuk gutaz jakiteko. ■■■

# "Navarra Suma da euren azken trintxera; harago, aldaketa dago"

**JOSEBA ASIRON** HISTORIALARIA ETA IRUÑEKO ALKATE OHIA

Nabarralde elkarteak antolatuta, hainbat hitzaldi, ikastaro eta erakusketa antolatu dira asteotan Bergaran eta Oñatin, Nafarroa Garaiko historia ezagutzera emateko helburuarekin. Joseba Asiron historialari, irakasle eta Iruñeko alkate ohia da hizlari aritu diren horietako bat.

Testua: **Eneko Azkarate eta Miren Arregi**. Argazkiak: **Xabi Urzelai eta Asier Iraeta**.

**H**istorialaria, urte luzeetan irakasle aritua eta Iruñeak izan duen lehen alkate abertzalea da Joseba Asiron (Iruñea, 1962). 2019ko hauteskundeetan Navarra Suma koalizioak alkatetza eskuratuta, oposizioko

kidea da une honetan. Nabarralderen eskutik eskualdea bisitatu du asteen.

**Urteak daramatzazue Nabarralden Euskal Herriko historia zabaldu guran eta ikusten da badagoela jakingura, ezta?**

Bai; zorionez, badago. 2012 urte inguruan zarata handia atera genuen eta interesa piztu zen. Data garrantzitsuak datoz orain ere, 2021a eta 2022a, eta berriro ere ari da pizten interes hori.

**1512ko konkistaren inguruan aritu zara Oñatin.**

Nik beti diot gaurko arazoak eta Euskal Herriko gatazka ulertzeko ezagutu behar direla erroak eta aitzindariak. Sustraiak aztertuz pistak jasotzen dira. Gaur egun zer garen jakiteko jakin behar dugu historia.

**Uste duzu, abertzaletasunetik harago, badagoela horren gainerako interesik?**

Ez, inola ere ez. Guk geuk ere ezer gutxi ikasi dugu Nafarroa Garaia-aren aferari buruz. Urte batean, selektibitateko Geografia eman nuen batxilergoko bigarren urtean eta *Nafarroa* hitza ez zen testuliburuan ateratzen 140. orrialdera arte. Are gehiago, gure historiako pasarte irristakorrek estali izan dira. Aitzindari horiekin, noski ez dakigula ezer gure historiari buruz.

**Jaime Ignacio del Burgoren eta zure arteko ika-mikak ezagunak dira. Zertan egiten duzue talka, bereziki?**

Pasarte irristakor horietan. Adibidez, 1200eko eta 1512ko konkistak, karlistaldiak, gerra zibila...

Garai haiek ezkutatu egin dira sistematikoki, kontatu dizkigute gauza batzuk eta beste batzuk ezkutatu egin dira hamarkadetan zehar. Orain, adibidez, badugu horren adibide oso on bat. Iruñean badugu arazo bat, Udalak zentsuratu behar duelako *Iruñea ezagutu dezagun* eskola programa, euren esanetan, gehiegi esplikatzeko delako baskoiei eta 1512ko konkistari buruz.

**Iruña-Veleia aferari dagokionez, zein da zure ikuspuntua?**

Ez dut lehen eskuko ezagutzarik, baina balantzan jartzen baditugu aurkitu dena eta aurkitu denaren garrantzia... Primizia horiek gure ikuspuntu



tradizionala aldatuko lukete euskarari eta erlijioari dagokionez. Esan dudana bezala, nik ez dut lehen eskuko ezagutzarik, baina sinisten dut han lanean zeuden profesionalengan. Eliseo Gilek ez du zertan historia bat asmatu horren inguruan, niretzat berme bat da han lanean zeuden profesionalen ibilbidea. Haietaz erabat fidatzen naiz, kontrakoa erakusten ez den bitartean. Kasu honetan, frogatu behar dena da faltsukeriatan ibili direla, eta hori ez dute frogatu.

### **Historiatik politikara egin zenuen jauzi eta zuzenean Nafarroako alkatetza kudeatzera. Nolako aldaketa izan zen pertsonalki?**

Aldaketa gogorra izan zen. Ni politikan sartu nintzen 53 urterekin. Ordurako sinistuta nengoen irakaskuntzan erretiratuko nintzela eta bat-batean sortu zen aukera hura. Politikoki oso eskertuta nago, hamarkadetan zehar jende askok lan egin zuelako momentu hura iritsi zedin eta unea iritsi zenean nigan sinistu zutelako, politikoki inork ezagutzen ez ninduenen. Alde horretatik, oso eskertuta nago. Egia da, bestetik, pertsonalki oso gogorra izan zela. Nik ikastolan nire bizitza egina nuen, dena kontrolpean nuen, oso ordutegi erosoarekin, eta horrelako abentura baten sartzea oso gogorra izan zen. Bereziki, etxean igarri zuten aldaketa.

### **Momentu gozoak ere izango ziren; zein aipatuko zenuke?**

Alkate izendatu ninduten eguna. Ni izan nintzen txupinazoa bota ez duen lehenengo alkatea, baina nik nire txupinazo propioa bizi izan nuen balkoi hartara irten nintzenean eta plaza beteta ikusi nuenen. Hori baino txupinazo handiagorik ez dago; gero, egia da alkatetzak izan zituela momentu asko eta satisfazio handikoak, baina hori bezalakorik ez dago.

### **2015ean, zuekin, lehenengoz indar abertzale bat iritsi zen Iruñeko alkatetzara. Orduan posible izan zena zergatik ez zen izan iaz?**

Seguru asko, arrazoi bat baino gehiago dago. Iruñean EH Bilduk ia bikoiztu egin zituen botoak, bost zinegotzi izatetik zazpi izatera heldu ginen, baina gure bazkideen jaitziera nabarmena izan zen. Alde batetik, Geroa Bai, abertzaletasun moderatua ordezkatzeko duen hori, jaitzi egin zen dezente. Seguru asko, guk jan genituen boto horiek, eta, bestetik, Podemosen marka zena, Aranzadi, sakabanatu egin zen. Hor biztanleriaren botoen %8 gelditu zen ordezkari barik. Ahaztu gabe eskuin guztia elkarrekin etorri zela: UPN, Ciudadanos eta PP. Hori egitera heldu ziren

estatuko toki bakarra izan zen. Oso argi zuten helburua eta horrek aldatu zuen guztia. Aurreko agintaldian gure botoekin bederatzi edo hamar zinegotzi aterako genituen, baina D'Hondt legeak modu horretan kontzentratu zituen botoak.

### **Sozialistek giltza zuten kasu horretan. Madrilen gertatutakoa eta Nafarroan ere gertatu dena ikusirik, iruditzen zaizu gaur egun izango balira hauteskundeak bestelakoa izango litzatekeela sozialisten botoa?**

Ez, ez dut horretan inolako konfiantzarik. Uste dut PSN jendearen aurrean gertatutakoa makillatzen dabilela eta nik uste dut egoera beraren aurrean berdin egingo luketela. Lizarran egun hauetan egon da PSNren baitako militanteen mugimendu bat zentsura-mozioa bultzatzeko. Lehengo alkatea gurea zen eta berehala PSNren exekutiba atera da esatera, ezetz. Beraz, zoritxarrez, PSN ez da aldaketaren aldeko eragilea.

### **Oposizioan egonda ere, Navarra Suma gutxiengoan gobernatzen ari da. Baduzue oposiziotik eragiteko aukera, ezta?**

Dudarik gabe. Oposiziotik ahalik eta gehien gobernatzea da gure nahia, eta aurrekontuekin gertatzen dabilena da adibidea. Navarra Sumak ez ditu aurrera atera aurrekontuak eta, berriz, oposiziotik, adostasunetara iristen, aurrera atera gura ditugu lehengo proiektuak.

### **Alkatetzan izan zineten lau urteetan izan zenuten aukerarik pisuzko aldaketak eragiteko?**

24 urteko erregimenari lau urtean ez zaio bueltarik ematen. Beharko zen, gutxienez, beste legealdi bat, baina egin genituen gauza oso inportanteak memoria historikoari dagokionez edo emakumeen kontrako erasoei dagokienez. Inportantea da gauzak egiteko beste modu bat badagoela erakutsi izana. UPNren eta PSNren arteko txandatzeko faltsu hori baino harago ez dagoela kaosik.

### **Lau urte haietan oihartzun handia izan zuen kasua La Manada-rena izan zen. Gizartea bestelakoa da horren ostean?**

Aldaketa kalean gertatu zen eta gero eman zuen jauzia instituzioetara. Nafarroan azken 80 urteotan izan den aldaketa soziologikoa izugarria izan da. Hasieran, UPNren eta PSNren arteko txandakatzea egon zen. Gero, UPNk gobernuan jarraitu ahal izateko PSNren laguntza behar izan zuen; orain etorri behar izan du eskuin guztiak elkarrekin, eta, gainera, PSNren konplizitatearekin. Harago, ez dago deus. Navarra Suma da euren azken trintxera. Harago dagoen bakarra aldaketa da.



Joseba Asiron, Oñatiko kultura etxean, hitzaldian.

**"ELISEO GILEZ ETA HAREN TALDEAZ ERABAT FIDATZEN NAIZ, KONTRAKOA ERAKUSTEN EZ DEN BITARTEAN"**

**"NIRE TXUPINAZO PROPIOA BIZI IZAN NUEN ALKATE IZENDATUTA BALKOI HARTARA IRTEN NINTZENEAN"**

**"MADRILEK EZ ZUEN SANJURJO JENERALAREN DESOBIRATZEA ONDO KOPIATU; ORDAINDU EGIN ZUTEN"**

Koalizioekin disimulatu egin dezakete, baina aldaketa etorriko da eta etorriko da gelditzeko. **Beste une bat izan zen Sanjurjo jeneralaren gorpuzkiak hobitik atera zenituztenekoa, oso bestelakoa Francorenarekin alderatuta, kudeaketari dagokionez.** Nik uste dut Madrildik ez zutela ondo kopiatu. Funtsean Francoren desobiratze horren subkontzientean bazegoen Iruñean gertatu zena, baina alderantziz egin zuten. Haiek, lehenengo, iragarri egin zuten, eta, noski, ea nola egiten diozun aurre eskuin soziologiko, mediatiko eta juridikoari. Guk alderantziz egin genuen. Lehenengo, erabakia hartu genuen, familiekin hitz egiten lortu genituen berme batzuk, eta gero iragarri genuen, bukaeran. Hauteskundeen gertutasunagatik, kontrako bidea aukeratu zuten Espainian, eta gero, larrutik ordaindu zuten. **Zuek egindako hainbat gauza Enrique Maia iraultzen dabil; nola ikusten duzue hori?**

Hori bestetik ez du egin. Bederatzi hilabete daramatzagu alkatetza horrekin eta behin eta berriz errepikatzen diogu ea noiz egin behar duen zerbait, hiriaren aldeko zerbait. Proiektua falta zaie, konturatzen dira desadostasun handiak dituztela Ciudadanosen, PPren eta UPNren artean, eta hori sekulako zama da eurendako. Enrique Maia jauna gutxiengoan dago eta ez du barne kohesiorik. Lortu nahi duena lortzen ez duenean, ke-gortina bat askatzen du; normalean, euskararen kontra. Pirritx eta Porrotxen kasua da adibidea, edo haur eskolen afera. Modu horretan saiatzen da barne kohesioa lortzen, duten arerio komun bakarra, nonbait, euskara delako.

**Zuek alkatetzan izan zineten moduan Uxue Barkos izan zen Gobernuan. Gaur egun, ordea, bestelakoa da egoera, EH Bildu oposizioan baitago Nafarroa osoan. Hala ere, badu giltza eta aurrekontuak onartzeko orduan akordiora heldu zarete. Zein balorazio egiten duzu?**

Ezkerrekoak beharrezkoak gara. Chivite presidentearen postua mantentzeko EH bildu beharrezkoa da eta hori da Parlamentuan nire kideek egiten duten lana, ezkerreko politikak eta politika sozialak aurrera atera daitezen. Nafarroako Gobernuari dagokionez, berme handiena da EH bildu.

**EAEn beste modu batean jokatu du EH Bilduk aurrekontuak onartzerakoan. Zein da diferentzia?**

Egoera oso desberdina da Nafarroan. Iruñean frontean gaude, hura beste mundu bat da. Askotan diot edozein etsai txarra iruditzen zaizula, UPN ezagutzen duzun arte. ■■■

# Akats ugari idazterakoan

## DISORTOGRAFIA



**MAIDER EGINO** LOGOPEDA  
ARGAZKIA: FREEPIK

Disortografia edo disgrafia dislexikoa haur batzuek idazten ikasteko prozesuan lengoaiarekin izaten duten zailtasuna da. Batzuetan, irakurketarekin ere zailtasunak izan ditzakete, baina bi gauzek ez dute zertan batera joan.

Haur batek disortografia duenean akats ugari egiten ditu idazteko orduan eta hitzak egokitasunez idazteko zailtasunak izaten ditu. Azpimarratzekoa da grafiarekin eta hitzen trazadurarekin ez dutela zailtasunik izaten.

### Disortografiaren sintomak

Disortografia duten pertsonak behin eta berriz egiten dituzte akats berak idazteko orduan. Hamar sintoma edo akats ohikoena jasoko ditugu jarraian.

- Fonema batzuen arteko ordezkapenak egitea artikulatzeko orduan, hitzek dituzten antzekotasunak direla eta. Esaterako, *f/z*, *t/d*, *p/b*...

- Hizki batzuen arteko ordezkapenak egitea, horien posizioa dela-eta antza dutelako *-d* eta *b / b* eta *p-*. Baita ere hizkiek ezaugarri bisual antzekoak dituztelako *-m* eta *n / a* eta *e-*.

- Omisioak egitea sinfoneetan edo silaba berean bi kontsonante daudenean. Adibidez, *prakak* beharrean *pakak* idaztea.

- *H* hizkia ez idaztea. Batzuetan, hitz osoa ez idaztea ere gertatzen da. Esaterako, *ordena* idaztea *ordenagailua* beharrean.

- Gehikuntzak egitea. Hau da, hizkiak gehitzea. Esate baterako, *etxea* idatzi beharrean *etxela* idaztea. Hitz osoak edo silabak gehitzea ere gertatzen da. Adibidez, *patata* beharrean *patatata* idaztea.

- Inbertsioak egitea. Hau da, hizkiak lekuz aldatzea. Adibidez, *trena* beharrean *terna* idaztea. Gerta daiteke, baita ere, silaba osoak lekuz aldatzea: *telefonoa* beharrean *telenofoa* idaztea. Edo hitzak bata bestearen tokian idaztea.

- Hitzak osatzen duten silaben arabera bereiztea edo idazterakoan hitzak elkartzea. Baita ere hitz baten silabak hurrengo hitzari lotuta idaztea.

- Puntuazio ikurrak gaizki idaztea.

- Hizki larririk ez erabiltzea puntuaren ondoren eta testuaren hasieran.

- Ez ulertzeko bezala idaztea.

### Disortografia motak

Hainbat disortografia mota daude. Disortografia pertzeptibo-zinestesikoa, esaterako, entzuten diren soinuak bereizteko zailtasunaren eraginez sortzen da. Ondorioz, haurrek entzuten dutena idazten dute. Ohikoena izaten da *r* beharrean *l* idaztea izaten.

Disortografia disortozinetikoa gertatzen da elementu grafikoak ordenatzeko eta sekuentziatzeko zailtasunaren eraginez haurrek hitzak elkartzeko edo zatitzeko arazoak dituztenean.

Disortografia bisoespaziala ere badago; pertzeptzio bisualarekin eta, batez ere, orientazio espazialarekin dago lotuta, eta hizki batzuk hautemateko zailtasuna du ondorio nagusi. Adibidez, *d* eta *b* edo *p* eta *q* nahastea.

Disortografia tenporala ere izan daiteke; zailtasuna dator hitzezko soinuak entzun eta transkribatzeko orduan, bai eta soinuen elementuak banatzeko edo elkartzeko orduan.

Disortografia semantikoaren akats tipikoa da esaldiak idazterakoan hitzak elkartzea edo zatitzea.



## HAUR BATEK DISORTOGRAFIA DUENEAN, AKATS UGARI EGITEN DITU IDAZTEKO ORDUAN



Disortografia kulturala ere izaten da; gertatzen da gramatikaren edo hizkuntzaren ortografia arauak zuzen erabiltzen ez direnean, puntuazio arauak ondo ikasten ez direnean, edo *h* - *s/z*, eta abar gaizki erabiltzen direnean.

Azkenik, disortografia dinamikoa edo disgramatismoa dago; idatzizko adierazpenetan gertatzen diren zailtasunak dira. Baita ere esaldiak

zuzen ordenatzerik ez dagoenean edo esaldi bateko elementu garrantzitsu bat kentzea ohikoa denean.

### **Detekzioaren garrantzia**

Garrantzitsua da haurraren garapen ebolutiboarekin lotura duen disortografiaren eta maila akademikoaren ondorioz sortzen diren ohiko akatsen arteko bereizketa egitea.

Gure haurrak horrelako sintoma bat duela

antzematen badugu, gomendagarria da profesional batengana jotzea; izan ere, zenbat eta lehenago detektatu arazoa, orduan eta lehenago jarriko ditugu martxan irtenbideak eta haurraren kalitate akademikoa hobetu egingo da.

Noski, haurrak duen disortografia mota identifikatzeak lagundu egingo digu tratamendu egokiena bilatzen. ■■■

# Lehenengoz, kirol olinpiar

ESKALADA, TOKIOKO OLINPIAR JOKOETAN

---

## ENEKO AZURMENDI

ARGAZKIAK: GOIENA

---

Aurten, 2020an, egingo dituzte Tokioko Joko Olinpiarrak, eta eskalada ere horien parte izango da, historian lehenengo aldiz. Hiru diziplina edo modalitate izango ditu: boulder eskalada, abiadura eskalada eta zailtasun eskalada. Eta hiru modalitate horietan batez besteko puntuazio onena lortzen duen eskalatazailea izango da txapelkun olinpiarra, emakumezkoetan zein gizonezkoetan.

Mikel Linazisoro eskalatazaile bergararrantzat oso albiste ona izan da. "Kirolari guztion edo gehienon ametsa da gure kirola olinpiarra izatea, eta, eskalada Olinpiar Jokoetan egongo dela jakinda, oso pozik jarri nintzen. Eskaladarendako oso positiboa da hori, kirola ezagutarazteko oso aukera ona delako; ea honekin jende gehiago gerturatzen den eskaladara. Horrez gain, diru gehiago sartuko da, instalazio berriak egiteko aukera gehiago edukiko ditugu, eta hori oso garrantzitsua da guretzat", azpimarratu du.

Hala ere, ez zaio hainbeste gustatu formatua. "Boulderra eta zailtasuna diziplina desberdinak dira, baina eskalatazaile gehienek bi horiek egiten dituzte. Abiadura apur bat lekuz kanpo dagoela iruditzen zait. Abiaturan onak

diren horiek eskalatazaileak dira, bai, baina gero ez dira oso ondo moldatzen eskalatzen. Abiadura egiten dutenen eta bestelako eskalatazaileen artean ezberdintasun handia dago. Esan dute 2024ko Parisko Olinpiar Jokoetarako abiadura aparte jarriko dutela. Modu horretan, egokiagoa izango litzatekeela uste dut", dio.

### Sailkatzeko aukerekin

Oraindik ez du Tokiorako txartela eskuratu, baina martxoko azken astean izango du Linazisorok Olinpiar Jokoetarako sailkatzeko azken aukera. Izan ere, Europako Txapelketa jokatu dute, Moskun. Sailkatzeko, ordea, "oso maila ona" eman behar duela dio. Dagoeneko hamar eskalatazaile daude sailkatuta Europatik, eta beste bat bakarrik sailkatuko da; hamar horiez gain, onena izaten dena txapelketan. "Oso maila oneko eskalatazaileak egongo dira, eta ez da batere erraza izango. Hala ere, egun ona edukita eta zorte apur batekin, posible da. Horretarako lanean ari naiz, eta ea sailkatzerik dudan".

**MIKEL LINAZISOROK  
MARTXOAN IZANGO DU  
TOKIORAKO TXARTELA  
ESKURATZEKO AZKEN  
AUKERA, MOSKUN**

### Baliabide gehiagoren beharra

Linazisorok dio orain gutxira arte eskalada kirol hippy moduan kontsideratu izan dutela askok, txapelketetatik aparte zegoena. "Baina azken urteetan hori asko aldatu da. Mundu mailan asko ikusi da eskalada oso kirol lehiakor bilakatu dela, rokodromoan. Euskadi eta Espainia mailan, ordea, ez hainbeste".

Iritzi berekoa da Josean Mulas Debagoieneko Eskalatazaileak taldearen sustatzailea ere, eta uste du Euskadin eta Espainian azpiegitura falta handia dagoela oraindik. Bide horretan, "lan handia" dago egiteko oraindik. "Hemen ez gaude olinpiar joko batzuei aurre egiteko prestatuta. Ez dugu nahikoa azpiegitura halako txapelketa baterako. Hemengo federazioak ez daude kirol olinpiarra izateko bezain ondo egituratuta. Baina Suitza edota Frantziara joanez gero, ikusiko duzu baietz. Gu, eskaladari dagokionez, India, Maroko, Iran eta halako herrialdeen maila berean gaude. Adibide bat jartzearen, Extremadurako eskalatazaile olinpiar batek astero Iruñera etorri behar izaten du entrenatzera, han ez daukalako azpiegitura egokirik. Udalek, federazioek, aldundiek, komunikabideek... guztiak jarri behar dute zerbait euren partetik eskaladari behar duen moduko oinarria jartzeko", azaldu du. ■



Gipuzkoako eskolarteko boulder txapelketa, Aretxabaletan.



Ibarra kirolddegiko rokodromoan, proba baten amaieran.



Eskalataile bat, rokodromoan gora.

# Kapritxo osasuntsua

BARATZEA, LORATEGI



**AITZIBER OTEGI** KIMU BAT  
ARGAZKIA: KIMU BAT

Betidanik ikusi ditugu baratzeak Euskal Herrian. Alde guztietan. Mendira zoaz eta baserri ondoetan baratzeak. Kaletik zoaz eta elkarri atxikitako etxeetako lorategietan baratzeak. Trenean zoaz eta ezker-eskuin daude baratzeak trenbide inguruak inbadituz. Batzuetan, metro karratu askotakoak izaten dira, baina, orokorrean, baratze txikitxoak ikusi ohi ditugu. Asko eta asko, oso bereziak. Lursail bateko metro karratu bakoitza milimetrora aprobetxatuz, maldan gora, maldan behera, guztia *tetrix* bat izango balitz bezala antolatuta... gerra garaia etorrita ere barazki falta ez dezagun izan!

Hala eta guztiz ere, orain arte, behintzat, bizirauteko zer edo zer bezala ulertu ditugu baratzeak; baserritarrek edo etorkinek egiten zituztenak. Inoiz ez gazteen kontua edo denbora-pasa bat; lan gogorra eta gutxierean gustukoa!

Horrela izanik, baratzeetan ez da estetika begiratu. Porrua modu honetan landatuko dut, tomatea horrela eta lekak beste modu honetan. Praktikoena delako. Ez zaio garrantzirik eman baratze polit bat edukitzeari. Gainera, beharrezkoa den kasuetan, baratzea plastikoz edo txapaz betetzen da, hain beharrezkoa

den ura lortzeko edo lanabesak gordetzeko txoko bat izateko. Badakizue, txabolismoaren joera barnean sartuta dugula dirudi, aukera dugunean ateratzeko prest dagoen sen bat izango balitz bezala.

## Baratzeen estetika

Azken urteetan, aldiz, pixkanaka-pixkanaka, baratzearen mundua eta baratze ekologikoaren mundua beste kolektibo batzuetara zabaltzen hasi da. Gaur egun, baratzea –edo *baratzing*-a– hobby bat izatera heldu da. Kirol bat. Gure denbora librean naturara gerturatzeko modu bat da, eta, aldi berean, erlaxatzen laguntzen diguna.

Hori dela eta, baratzeak, pixkanaka, beharrezko zerbait izatetik kapritxo osasuntsu izatera pasa dira, eta, honekin batera, beraien estetika geroz eta gehiago zaintzen da, mundu berri bat irekiz. Nekazaritza ekologikoan askotariko barazkiak erabiltzea aholkatzen da, baita loreak eta landare aromatikoak jartzera ere, eta honek ere baratzeak atseginago egiten lagundu digu. Pixkanaka,

## BIHUR DITZAGUN GURE BARATZEAK LORATEGI BIZIAK, KOLORETSUAK ETA ZAPOREZ BETEAK

konturatzen hasi gara baratzea ere polita izan daitekeela. Barazkiak produzitzeaz gain lorategi baten moduan posible dela kolore konbinaketekin, altuera desberdinetan edo barazki bariatateekin jolastu. Ondo zaindutako eta diseinatutako baratzea ere oso polita izan daitekeela.

Adibide moduan, Kutxa Ekoguneko Baratze Parkeetan debekatuta dago plastikoaren erabilera, kontsideratzen dugulako Baratze Parke bat herri horretako biztanle guztiei zabaldurik dagoen parke edo lorategi bat dela. Baratzea eduki edo ez herritar guztiok disfrutatzen leku bat dela.

## Orsan herriko baratzeak

Frantsesek aspalditik hartu ziguten aurre. Ikusi besterik ez dago herrialde guztian zehar dauden lorategi zoragarrietan aurkitzen diren baratze izugarri politik. Kuriositate pixka bat sortu badizuet, begira ezazue Orsan herriko lorategietan aurki daitezkeen baratze liluragarriak.

Beraz, bihur ditzagun gure baratzeak lorategi biziak, koloretsuak eta zaporez beteak.

Elikatzeaz gainera, gure bazterrak apainduko dituzten baratzeak izan daitezela. Politik egin ditzagun, eta, aldi berean, eman diezaiegun baratzeari askotan kendu diogun duintasuna.

Baratzea ere lorategi bat izan daitekeelako. ■■■



Franziako Orsan herriko baratze-lorategiak.



# Maialde jatetxean, etxeko postre ugari



**JESUS KALBOETXEAGA** SUKALDEBURUA  
IRUDIAK: J.O. ETA A.T.

Tradizioa izaten dugu oinarri Maialden, eta lagungarri bezala jartzen dizkiegu plateri sormenezko txinparta batzuk. Sukaldaritza gardena egiten jarraitzen dugu, eta baita bezeroarekiko gertukoa dena ere. Dena dela, ostalaritza sektoreak ekartzen dituen aldaketetarako ilusioz eta erronka berriak hartzeko asmoz lan egiten dugu beti Maialde jatetxean.

## Bezeroen zerbitzura

Gure bezeroek proposatutako aukera berriei eusteko prest egoten gara beti; euren zerbitzura jartzen gara eta eskatzen diguten gustuetara eta aurrekontuetara moldatzen saiatzen gara beti. Edozein eskaritara zabalik egoten gara eta bezeroei aholkuak ematen dizkiegu, euren otordu hori ahalik eta onena izateko helburuarekin. Horren baitan, esaterako, menestrak prestatzen ditugu, baita baba-janak ere. Askotan,

eramateko platerak prestatzen ditugu, bezeroek nahi duten lekuan dasta ditzaten.

## Postreak, preziatuak

Bezeroek bereziki maite dituzte postreak gurean; izan ere, etxean egiten ditugu, mimo handiz beti, eta, horrez gain, gorengo kalitateko produktuak erabilia. Hain zuzen ere, hori baloratzen da postreetan; argazkian ikusten dena postre klasiko baina oso arrakastatsua da, urteko sasoi guztietarako aproposa. ■■■

## Maialde jatetxea

- **Helbidea:** San Roke kalea 26, Elgeta.
- **Telefonoa:** 943 78 91 07.
- **Webgunea:** Casaruralmaialde.com.
- **Facebook:** Maialde.



## MAIALDE JATETXEARI ESKER

IRABAZI BI LAGUNENDAKO OTORDUA. HARTU PARTE!



943 25 05 05



kluba@goiena.eus



KLUBA Jatetxea [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.



## Fruta-tarta

### Osagaiak (6 lagunendako)

- 250 g irin
- 225 g azukre
- 150 g gurin
- Lau arrautza
- Litro bat esne
- Bi gorringo
- 60 g arto-irin
- Melokotoia
- Platanoa
- Kiwia
- Marrubiak

### Prestaketa

- 1. Masa egiteko, irina eta gurina nahastu behar dira, eta ondoren, azukrea eta arrautzak gehitu. Ondo oratu eta hozkailuan utzi 30 minutuz.
- 2. Pastel-krema egiteko, esnea irakiten jarri kanela apur batekin eta limoi-azal apur batekin. Arto-irina eta 125 g azukre gehitu esnetara eta ondo nahastu. Irakiten utzi, trinkotasuna izan arte. Sutatik kendu eta hozten utzi.
- 3. Arrabolaz oreka zabaldu eta molde batean jarri, 20 minutuz laberatzeko, 160 gradura.
- 4. Behin oinarria bukatuta, pastel-kremarekin bete. Frutak laminatu eta tartara gehitu. Pintzel baten laguntzarekin fruten zukuarekin frutei distira apur bat eman.

Zailtasuna: • • • • •

## Aurreko zozketako irabazlea: Leonor Barrena Arregi (Oñati)

Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestionatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezeztatzeko, helbide honetara idatzita: [kluba@goiena.eus](mailto:kluba@goiena.eus)

**goienakluba**<sup>“</sup>  
Euskara irabazle, denok irabazle!

# Zango-estuez haratago

## PRAKA BAKEROAK

### AMAIA ARANEGI

ARGAZKIAK: @IN\_LUUK, GETTY IMAGES

Praka bakeroak edonoren armairuan aurki ditzakegu. Izan ere, basikoetako bat dira, eta edozein *look* sortzeko baliagarriak. Orain arte, praka zango-estuak (pitilloak) izan dira ohikoenak, baina, gaur egun, aniztasun handia dago eta horrek aukera asko eskaintzen ditu. Praka zango-estuek hor jarraitzen dute, baina, aukera gehiago daude. Honela dio Iratxe Gaztelu estilista oñatiarrak: "Praka zango-estuen hegemonia bukatu egin da. Orain, praka bakero mota asko daude eta hori oso ondo dago gorputz desberdinei moldatzeko. Praka zango-estuak ez dira gorputz mota guztiendako egokiak; jantzi zaila da".

Hain zuzen ere, lau dira gehien ikusten direnak. Ezaugarri desberdinak dituzte, baina ez dira elkarren artean askorik desberdintzen.

### Askotarikoak

Orain eramaten den praka mota bakero bat kanpai-formakoa da. Baina ez dira lehengo kanpai-formako prakak bezalakoak; gaur egungoek beste ezaugarri batzuk dituzte: "Kanpai-formakoek hanka luzatzen dute, eta, beraz, altuera txikikoentzat dira egokiak. Kanpai-formako prakak beste bertsio batekoak dira, ez dira hain zabalak eta ez

dago diferentzia handia behetik gora". Praka mota hauen antzerakoak *flear* izenekoak dira: 70eko hamarkadan daude inspiratuta eta pertsona garaientzat dira aproposak: "Praka mota hauek zapatilak eta orkatilak bistan uzten dituzte, kanpai-formako praketatik altueran bakarrik bereizten dira. *Flear* bakeroak oso aproposak dira bulegoko *look* baterako".

Beste mota bateko bakeroak *cropped* eta *culotte* izenekoak dira. Hauek ere desberdintasun gutxi dituzte elkarren artean: "*Cropped* bakeroak luzeagoak dira, bukaeran listatuta daude eta orkatila baino gorago bukatzen dira. *Culotte* bakeroak, aldiz, zabalagoak eta motzagoak dira".

Eta modan dauden beste bakero mota batzuk *boyfriend* eta *mon jeans* dira: "*Mon jeans* izenekoak gerri altudunak, mokorrean zabalak eta bernan estuak dira. Harea-erloju forma baduzu... zuretzat aproposak dira". *Boyfriend* bakeroak, berriz, zabalagoak dira, eta beste gorputz mota batzuentzako moldagarriagoak.

### Etorkizuneko joera

Oso ohikoa izaten da praken bukaeran tolestea, baina tolesdura horiek handiagoak izatea izango da etorkizuneko joera: "Etorkizunean, joera totala izango da praken barrenak asko tolestea. Kalean asko ikusiko dugu". ■



*Mon jeans* bakeroak.



*Culotte* bakeroak.



*Cropped* bakeroak.





Gaur egun modan dauden bakero motak.



Boyfriend bakeroak.



Kanpai-formako bakeroak.



Tolesdura handia.

# Kozinatu osteko olioia, erregai?

'NESTE MY RENEWABLE DIESEL'-A

## XABI GOROSTIDI

ARGAZKIAK: TEKNIKANMAAILMA ETA X.G.

Eskandinaviako herrialdeak erreferente dira sektore askotan, eta horietako bat, ezbairik gabe, energia berriztagarriena da.

Mugikortasun jasagarrian aitzindari dira, eta bertako auto ekoizleak abangoardian daude ibilgailu elektrikoaren alorrean.

### Olioekin lortutako erregai garbia

Aitzindaritasun horren beste adibide bat Finlandian dago. Bertan egoitza duen Neste enpresak biodiesel erregai bat garatu du, %100ean jatorri berriztagarria duten osagaiekin. Baina hori ez da abantaila bakarra; erregai fosilen aldean berotegi efektuko gasen isurketa %90 gutxitzen ei ditu erregai horrek. *Neste My*

*Renewable Diesel* izena jarri diote eta hiru osagai hauekin osatuta dago, %100ean: hondakinetako olioak, olio birziklatuak –sukaldekoak eta industriakoak– eta landare-olio hidrotratatuak.

### Emisio gutxiago

Enpresa finlandiarrak 2014tik dihardu erregai mota hau garatzen. Emisio murrizketa horiek hainbat test eginda frogatu dituzte ordutik hona, eta emaitzak azpimarratzeko modukoak dira. Erregai fosilen aldean %33 murrizten dute partikula finen isurketa –kedarra, adibidez–, %9an nitrogeno oxidoena eta %24ean karbono monoxidoena. Aipatutako horiez guztiez gain, murrizketa nabarmenak ditu hidrokarburo poliaromatikoaren alorrean ere. Onuren zerrenda

ez da hor amaitzen, besteak beste, errendimendu hobea eskaintzen duelako tenperatura baxuekin eta errekontza eraginkorragoa eta garbiagoa duelako, zetano maila altuak dituelako.

### Ford Transit-etan, emaitza onak

Ford auto ekoizleak Nesteren erregai berriztagarria probatzeko apustua egin du; konkretuki, Ford Transit furgonetetan, Eco Blue 2.0. motorrekin. Hala, egindako testak "oso ondo" funtzionatu du. "Autoari inolako aldaketarik egin gabe, erregaiak primeran funtzionatu du. Era honetako olioak erabiltzea aukera erreal bat da, Ford Transit-en gidariekin airearen kalitateari ekarpena egiteko" azaldu du Ford ibilgailu komertzialen Europako zuzendari Hans Schepek. ■

## Jada erabilgarri Eskandinaviako gasolindegietan batzuetan

Erregai mota hau jada eskuragarri dago Europan; batez ere, Eskandinavia aldean. Hain zuzen ere, bi eratarik eskuratu daitezke: purua –nahasterik gabe– eta diesel normalarekin nahastuta. Azken modu horretan ez du arazorik ematen, eta a proposa da eskaintza masiboagoa eduki arte gidariekin erabili dezaten.



*Neste My Renewable Diesel* erregaia Eskandinaviako gasolindegietan.



Pertsona bat, olio erabilia erregeia izango balitz bezala erabiltzen.

# Ana Arregi

**JONE OLABARRIA**

IRUDIAK: ANA ARREGI

Arte Ederrak ikasten ari da Ana Arregi oñatiarra. Argazkilaritzan eta margogintzan aritzen da, bereziki, "abstrakzioa" lantzen du bere koadroetan eta argazkietan, berriz, gorputzak eta bizitza bera islatu ohi ditu.

## **Nola hasi zinen artearekin harremanetan?**

Txikitatik gustatu izan zait; pinturako eta zeramikako klaseetara joaten nintzen umetan. Oso urduria nintzen, eta lasaitzen eta deskonektatzen laguntzen zidaten ekintza horiek.

## **Gaur egun, Arte Ederrak ikasten ari zara; zer bide segi nahi duzu?**

Fakultatean modalitate ezberdinak landu ditut, eta, egia esanda, oraindik ez dakit non sentitzen naizen erosoan.

## **Abstrakzioarekin lan egin ohi duzu.**

Marrazketa askorik gustatzen ez zaidan arren, margotzerakoan bai, abstrakziorantz joaten naiz orokorrean beti. Forma eta koloreekin gustatzen zait lan egitea; hauen konbinazioaz sententzia ezberdinen bila joaten naiz. Esaterako, *Norabideak* izeneko koadro bat dut; eredu hori argi eta garbi jarraitzen dut.

## **Argazkilaritzan ere bazabiltza...**

Gazteagoa nintzela, argazki kamera bat oparitu zidaten, eta orduan hasi nintzen. Batxilergo artistikoa egin nuenean, baina, kamerarekin lan gehiago egiten



hasi nintzen. Egun, asko gustatzen zaidan zerbait da argazkilaritza.

## **Zer motatako lanak egiten dituzu?**

Margotzerakoan alderdi estetikoari gehiago erreparatzen diodala esango nuke. Argazkilaritzan, baina, bestelako sakontasun batekin lan egiten dut.

## **Gorputzak ardatz dira zeure lan askotan...**

Bai; gorputza bere zentzu guztietan lantzen saiatzen naiz. Kartzela edo babesleku modura, ordezkatzen zaituen hori bezala eta aldi berean ordezkatzen ez zaituena izanda, azala, sexualitatea... bizitzako arlo guztiak gorputzean islatuta lantzea gustatzen zait.

## **Arlo teknikoari erreparatuta, nola ateratzen dituzu argazkiak?**



Argazki bakoitzak eskatzen duenaren arabera ateratzen ditut. Ez diet askorik erreparatzen aurretik planoari edo halako elementu teknikoari, sentiarazten didatenaren arabera bilatzen ditut irudiak.

## **Edizioan aritzen zara?**

Egia esanda, ez gehiegi. Gustuko dut, baina oraindik gehiago sakondu nahiko nuke gai horretan.

## **Zer garrantzi dute sare sozialek zure lanean?**

Lagungarriak dira; gero eta gutxiago joaten gara erakusketa edo museoetara, eta artistekin feedback zuzena ahalbidetzen dute sare sozialek. ■■■



# Enbor bereko ezpala

PANTXOA ETA UGO CARRERE MUSIKARIAK

## AITZIBER ARANBURUZABALA JULDAIN

ARGAZKIAK: IMANOL SORIANO

Orain dela urte asko Oñatin egon barik zegoelako eta Beskoitzeko ikastolaren alde bertako ikastolek antolatuta zelako, pozik kantatu zuen Pantxoa Carrerek domekan, lepo betetako parrokian.

Iparraldeko musikariak izan ziren kartelego ardatz nagusi: Pantxoa eta Ugo Carrere, Iñaki Dieguez, Michel Ducau, Pantxix eta Marie Bidart, Mattin Lerissa eta Maialen Errotabehere; Oñatiko musikari Juan Vallsek, Iñigo Arrazolak eta Ander Etxanizek ere hartu zuten parte. Bakoitzak bere modura, Manex Pagolaren omenez abestu zuten guztiek. "Niretzat lagun handia izan da Manex, eta Euskal Herri guztiarentzako kantu egile aparta; jendearen bihotzetara heldu dira hark sortutako abestiak", azaldu du Carrerek.

### Betidanik ikastoletatik gertu

51 urteko musika ibilbidean, ikastolen aldeko kantaldi asko egin ditu Pantxoa Carrerek, Peio Ospitalekin gehienak. "1969an hasi ginen bikote moduan kantuan, eta Seaskako ikastolen hastapenak ziren orduan; harrezkero, sortu diren ikastola guztietan izan garela esango nuke; bospasei abeslari ibiltzen ginen garai hartan.

Laukote formatuan jarduten du orain, eta domekan, Iñaki Dieguez taldekidea eta Ugo

semea izan zituen lagun.

"Niretzat plazera da semearekin taula partekatzea; Oñatikoa kantaldi berezia eta, nire ustez, bere gustukoa zelako proposatu nion. Poitiers-en bizi da orain, Farmazia ikasten ari da.

Euskara eta euskal kultura munduan murgilduta dago betidanik, eta pozik nago; izan ere, gure garaian, Iparraldean ez zegoen abertzalerik, euskaldunak ginen gehienak, gure gurasoak ere euskaldunak ziren, baina abertzaleak ez.

16-18 urterekin hartu nuen nik kontzientzia hori, eta, zorionez, etxean ikusi dutelako edo, semea eta alaba abertzaleak dira naturalki".

### Biak musikariak

Semeak gitarra jotzen du eta alabak –Naia– trikitia, eta aitak musikazaletasunaren *kulpa* zati bat berea dela aitortzen du:

"Etxean musika asko entzun dute, denetik; eta ikastolan ere zortea izan dute izan dituzten musika irakasleekin; batez ere, Xalbador kolegioan". Etxean bi norabideko transmisioa izan dutela aitortzen du, aldi berean: "Ugori esker, Kerobia taldea

## PANTXOA ETA UGO CARRERE AITA-SEMEEK ELKARREKIN ABESTU ZUTEN BESKOITZEKO IKASTOLAREN ALDE

ezagutu nuen, adibidez; eta nik hemengo kantari zaharragoak ezagutarazi dizkiet".

Taularen gainean ez dute aitaren antz handirik; rock estiloan jarduten du semeak eta dantzaria da alaba. "Ugok ez du talde finkorik, baina askorekin ibili izan da. Beti ikusi izan dut, jaiki bezain laster, gitarra hartu eta jotzen. Naia Inauterietan eta beste jai batzuetan ateratzen da lagunekin trikitia jotzera; bereziki, Getariako Zarena Zarelako dantza taldean dabil".

### Musika, euskaren arnagune

Urte gutxian talde asko sortu dira Iparraldean, eta Carrere pozik da uztarekin: "Zorionez, talde gehienak euskarari lotuta daude; horrek erakusten du gure lana ez dela debaldekoa izan. Ez dut uste moda kontua denik. Gaztetxeetan eta jaietan aritzen dira, gehienbat; ez dago apenas musika aretorik".

Musika euskararentzako arnagune garrantzitsua dela dio abeslariak: "Nire garaian, euskara asko entzuten zen kalean, eta oso bitxia egiten zitzaigun frantsesa entzutea; gaur egun, aldrebes da, euskara baino frantsesa entzuten da gehiago. Parisko erretiratu asko ari dira etortzen eta horientzako Euskal Herria Frantziaren hegoaldea da; salbuespenak dauden arren, euskaratik urrun daude; hori horrela, etsipenak ditudan arren, konfiantza dut euskal gazteengan". ■■■



Pantxo Carrere eta Ugo Carrere aita-semeak, Oñatin, domekan.



Ugo Carrere, Pantxo Carrere eta Iñaki Dieguez, Beskoitzeko ikastolaren alde Oñatiko San Migel parrokian egin zuten jaialdian.

# Begiratu gabe ere ikusi egiten dira



## Erakuslehihoan

**Idazlea:** Karmele Mitxelena

**Ilustratzailea:** Irrimarra

**Argitaratzailea:** Erein

**Argitaratze urtea:** 2019

**Orrialdeak:** 32

**Generoa:** Album ilustratua



**NAGORE INDA** OÑATIKO LIBURUTEGIKOA

Beste behin, album ilustratu bat aurkeztu nuenean hemen, kontatu nizuen zein hedatuta dauden formatu hau duten liburuak, bakarrik haurrentzako direla eta nola liburutegietan ere helduen atalean non kokatu ez dakigula ibiltzen garela.

Orain dela gutxi, Teresa Duran albumetan eta literaturan adituari irakurri nion liburu-formako objektu kultural bat dela album ilustratua, irudien eta testuen hizkuntzen arteko esperimentazio baten emaitza. Eta honi gehitzen zion ez dela halabeharrez haurrentzat egina eta gure garaiko eboluzio kultural, sozial, teknologiko eta artistikoaren lekuko den artefaktu gisa ikus daitekeela.

**Gurean** oraindik tradizio laburra izan arren, poliki-poliki baina etengabeko eboluzioan ari da garatzen albumen

bilakaera. Peru Abarka Album Lehiaketa bezalakoek asko laguntzen dute horretan. Euskal idazle hasi berriak, formatu honetan argitaratzeko gogoia dutenak edo ilustraziogintzan ari direnak ere literaturaren mundura erakartzeko ahaleginean sortutako lehiaketak beti direlako bultzada bat. Horrela sortu zen *Erakuslehihoan*, Karmele Mitxelenaren idazlana eta Irrimarra bikotekidearen ilustrazioekin osatutako album ederra. Testuak edozein irakurle harrapatzen du. Ez dakit zer den, baina paragrafo batetik bestera oharkabean

**ISTORIO MINGOTSA  
KONTATU ARREN,  
SUABE ETA LASAI  
ERAMATEN DU  
IRAKURLEA**

eramaten zaituen zerbait dauka; transmititzeko era, beharbada. Badu tonu apal eta xaloa hitzen joskeran, baina hain dotore idatzitakoa da, narrazioak hartzen du deskribatu ezin den handitasun bat. Hain ongi lantzen du esan nahi duena, istorio mingotsa kontatu arren suabe eta lasai eramaten du irakurlea bukaeraraino. Tonu triste eta malenkoniatsu horri kontrapuntua jarri nahian edo, Irrimarrak lau eskutara akuarela teknika erabiliz egindako ilustrazio koloretsuekin uztartu du narrazioa, testua are gehiago goratzeraino. Emaizta bikaina lortuz.

**Lan** interesgarriak deskubritu izan ditut Peru Abarka moduko lehiaketei erreparatuta. Benetan, bota begirada bat aurreko edizioetako tituluei ere, autore eta ilustratzaile berriak deskubritzeko. ■



# Goiena Klubaren txokoa

## Hauek dira urtarrileko irabazleak!

### TELEBISTA LG 32 LJ50

Albina Arregi Trojaola (Arrasate)

### HARREMAN DENDA KO OTARREA

Isabel Guerra Cordero (Arrasate)

### ARRIKRUTZ KOBETAKO SARRERAK

Maitane Anduaga Alonso (Oñati)

Jose Maria Altube Guridi (Oñati)

Amaia Irizar Aranburu (Bergara)

### "GOAZEN 6.0" IKUSKIZUNERAKO SARRERAK

Joanes Larrañaga Arroyo (Arrasate)

Asier Urzelai Letona (Eskoriatza)

Maite Larrañaga Olabarria (Bergara)

### "ZALDI URDINA" ANTZERKIRAKO SARRERAK

Miren Gurutze Anduaga (Antzuola)

### "GAUEKOAK" DANTZALDIRAKO SARRERAK

Miren Bengoa Leibar (Arrasate)

Iñaki Martinez Busteros (Arrasate)

Iñaki Idigoras Igartua (Oñati)

### "STRAD" IKUSKIZUNERAKO SARRERAK

Jesus Belamendia Agirre (Elgeta)

Igor Martinez Perez (Arrasate)

Ibane Letona Urteaga (Arrasate)

### 'GORRIA' DANTZALDIRAKO SARRERAK

Eulalia Ugarte Alberdi (Bergara)

### ZELAI ZABAL JATETXERAKO BI PERTSONENDAKO OTORDUA

Roberto Maiztegi Balanzategi (Bergara)

### MAUXKA JATETXERAKO BI PERTSONENDAKO OTORDUA

Ismael Etxeberria Agiriano (Oñati)

### TARTUFO JATETXERAKO BI PERTSONENDAKO OTORDUA

Juan Miguel Lizarralde Lezeta (Antzuola)

### ITURRIETA JATETXERAKO BI PERTSONENDAKO OTORDUA

Nerea Sarasua Arozena (Elgeta)

### MAULANDA JATETXERAKO BI PERTSONENDAKO OTORDUA

Arantza Jausoro Lazkano

#### SARIAK JASOTZEKO:

**Arrikrutzeko sarrerak.** Goiena klubeko txartela erakutsita, bina sarriera izango dituzue Arrikrutzeko txarteldegian. Sarriek 3 hilabeteko epe muga izango dute. **ARRIKRUTZ KOBETAK.** Areatz Auzoa, OÑATI. 943 08 20 00. Ordutegia: Asteartetik Igandera 10:00 - 17:00 (Auzoetako hitzorduek egiteko) Harreman dendako otarrea **Otarrea** jasotzeko, jo zuzenean, bazkide txartelarekin. Harreman dendara: Arrasateko Eroski hipermerkatuan duen dendara. **Saria jasotzeko,** zabal GOIENAREN egoitza. Saria jasotzeko, BAZKIDEAREN TXARTELA erakutsi edota BAZKIDE ZENBAKIA jakitera eman behar da. GOIENA Otarrea Lizenziaduna 31, Arrasate. 943 25 05 05. Ordutegia: Astelehenetik eguenera: 09:00 - 18:00. Egubakoitzetan: 08:00 - 14:00.



Puntua aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartelaren abantailaz gozatzeko...



2020ko bazkidetza: 56€

Deitur: 943 25 05 05

klubakluba@goiena.eus

goienakluba

# Argi-ilunak sortzen

ARANTZAZUKO SANTUTEGIKO BEIRATEAK

## MIREIA BIKUÑA MADRID

ARGAZKIAK: 'ARANTZAZU.ORG'

Kristauendako bizitza, salbazioa eta zoriontasuna sinbolizatzen ditu argiak. "Ongia irudikatzen du, iluntasunari, gizakiari eta negatiboa denari kontrajarriaz", irakur daiteke *Arantzazu.org* atarian.

Eraikin erlijiosoetan proiektatzen den argia zuria izan ohi da, normalean. Bada, geroz eta ohikoagoa da beste kolore batzuk ikustea. Bereziki, kolore eta tonu nahasketak efektu bereziak sortu gura dituenen. Horixe bera pentsatu zuen Xabier Alvarez Eulatek Arantzazuko santutegiaren beirateak egiteko enkargua jaso zuenean. Forma biribileko zortzi beirate sortu zituen, eta zeharkako nabearen goiko aldean ipini zituen, modu asimetrikoan. Beirateak abstraktuak dira. Forma suabeak dituzte eta uhin itxurakoak dira. Bereziki, kolore urdina erabili zuen. Eguzki izpiek eta kanpoko argitasunak urdin gama zabala erakusten dute. Batzuetan, more kolorea ere azaleratzen da. "Argi-ilunak sortzen dituzte. Konposizio abstraktuak dira, batez ere, baina bada erreferentzia figuratiborik: agerraldiko elorria gogorarazten duten formak eta, beiren atzealdean itxuraldatuak, elizako harrizko hormak argi urdin misterioitsu

batez tindatzen dituen Arantzazuko mendi-paisaia", esan zuen Eulatek berak, egindako lanaren gainean galdetuta.

## Kolore ezberdinak

Zortzi beirate horietatik sartzen den argiak efektu berezia egiten du basilikaren barruan, eta bereziki Lucio Muñozek egindako erretaula nagusian.

"Beirateak basilikan gustu onez daude integraturik. Ez dira bereziki nabarmentzen; izan ere, proiektuaren ideia nagusiari moldatu zitzaizkion Jainkoaren etxea dekoratzeko asmoz", esan dute frantziskotarrek.

Urdinari, gorria eta zuria gehitzen dizkio kriptarako jaitsierarako egindako beiratean. Laukizuzen forma dauka, eta jaitsiera horrek duen iluntasunari efektu koloretsua ematen dio.

Koloreen paleta erabat aldatu zuen basilikaren bigarren mailako sarrerako beirateak egiteko. Tonu bioletetan hasi, eta kolorez kolore zurirainoko bilakaera egiten du, laranja eta horia erabiliz.

## TONU URDIN ASKOKO ZORTZI BEIRATE BOROIL IPINI ZITUEN ALVAREZ EULATEK ARANTZAZUN

## Frantziatik

Xabier Alvarez Eulatek 1954ko ekainean hasi zuen basilika barrurako zortzi beirateak egiteko lana. Saints Just Sur Loire beirategiak zuen kristalak egiteko ardura. Metz-en, Frantzian, egin zituzten Eulatek berak bidalitako txantiloiak erabiliz: kartoizko plantillak bidali zizkien modelo gisa. Mosaiko estiloa hartu zuten.

Hala, beirateak egiteko prozesuak ere izan zuen atzerapenen bat edo beste. Luzeena bi urteko geldialdia izan zen. Frantziskotarrek aduanetako ordainketa-salbuespena eskatu zuten, Aulki Santuaren Konkordatuaren 20. artikulua aintzat hartuta. Horrek dio gurtza katolikora bideratutako objektu guztiek zerga-salbuespena dutela. Baimen berezi hori 1957ko apirilaren 3an lortu zuten frantziskotarrek, Kubako kongregazioak egindako ordainketari esker. Orduan hasi zituen berriro Eulatek beirateak egiteko lanak.

## Arte Ederrak ikasi zituen

Alvarez Eulatek (1919-2012) Madrilen Arte Ederrak ikasi zituen, eta handik heldu zen Arantzazura. Bere artelanak figurazioari eta abstrakzioari lotuta daude. Beste lan aipagarri batzuk dira Donostiako San Inazio elizakoak eta Bergarako Madalena ermitakoak. ■■■



Basilikaren sarreretako batean dagoen beiratea.



Beirate borobilak.



Kriptarako sarrerako beiratea.

# Hor egon izan da beti



ANDER ZUBIZARRETA

**N**oizbehinka izaten ditugu adinean aurrera goazela ohartarazten gaituzten elkarrizketak, non lehenagoko bizipen eta garaiez jarduten dugun. Lantokian izan nuen aurreko batean horietako bat, adinean hurbil ditudan lankide pare batekin.

**Gogoratuz** aritu ginen nola, lehenago, Internetera konektatzeko konexioa zabaltzeko botoia sakatu eta itxaron behar izaten genuen, *pi-po-pi-pu... prrrrrrrrrr... eta antzeko zarata arraroak entzuten genituen bitartean. Itxaronaldiaren ostean, zortea bazegoen, konexio geldo bezain hauskorraz, mundu berri batera konekta gintezkeen. Solaskideoi –Internet eguneroko lan-tresna dugun software garatzaileak guztiok– bestelako galderak ere etorri zitzaizkigun burura: "Nola lan egiten zuten gure lan Internetik ez zegoenean?".*

**Batzuek** *millenial* deritzoten belaunaldi horretakoa naiz ni, eta nerabezaren harrapatu ninduen sarearen eztrandak, MSN Messenger eta txatak izarrak zirenean, garai hartako sare sozialak. Antsietatez itxaroten genuen konektatzeko momentua, ondoren gure denbora sarean xahutzeko. Oztopoak, baina, nabarmenak ziren. Tarifa laua ez zen arratsaldeko 6ak arte hasten, eta aurretik konektatzea oso



STATICFLICKR / PMK

garestia zen. Hala zioten gurasoek, behintzat. Hori gutxi balitz, Interneteko konexioak telefono sarea erabilgarri ez egotea eragiten zuenez eta mugikorrik ez genuenez, etxe askotan ez ziguten uzten konektatzen gaua iritsi arte, jada inork etxera deituko ez zuela suposatzen zen ordu hori iritsi arte.

**Kontuak** aldatu egin ziren ADSL zein zuntzeko konexioak garatu zirenean. Hauekin posible zen une oro

## GAINEAN DARAMAGU INTERNETERAKO SARBIDEA; NOLA BILAKATUKO DA INTERNET 5G-AREKIN?

konektatuta egotea, orduari so egin gabe. Eta garrantzitsuagoa, telefono linea okupatu gabe. Wifiak, geroxeago, etxeko edozein txokotatik konektatzea ahalbidetu zigun. Aurrerapenak aurrerapen, beharrezkoa zen ordenagailua sarea atzitzeko.

**Egun**, gainean daramagu Interneterako sarbidea, telefono adimendunei esker, eta mugak seinalearen indarra eta datu-tarifa dira. Wifiaren bila aritzen ginen hasieran. Europar Batasuneko *roaming* tarifen desagerpenari esker, orain oporretan goazenean ere ez ia.

**Berrira** ohitu ahala, erraz ahazten ditugu atzean utzitakoak, pasatako denbora luzea ez izan arren. 5G delakoa ate-joka datorrela diruen honetan, pentsatzen jartzen naiz nola bilakatuko den Internet datozen urteetan. Susmoa dut nonahi egongo den zerbait izango dela, arnasten dugun airea balitz bezala. Inongo gailu berezirik –routerra edo *SIM* txartela kasu– behar izango ez dugu konektatzeko. Inolako konfigurazio eta ezer gabe, garden bezain opako.

**Ziur** asko, denbora gutxi baino lehen, irudipena izango dugu hori beti hala izan zela eta beti hor egon zela. ■

## Azken orduari lotuta, aplikazio bidez


Munduan gertatzen denari etengabe konektatuta egoteko aukera eskaintzen digu Internetek; are gehiago, mugikorretara heldu zenetik.

Merkatuan aplikazio aukera zabala daukagu; besteak beste, hainbat gairen gainean unean uneko informazioa ikusteko aukera asko daude.

### Uneoro konektatuta

Azken asteotan, adibidez, koronabirusaren kasu susmagarri eta baieztatutako guztiak "zuzenean" jarraitzeko aukera eskaintzen dute hainbat aplikaziok. Gehienek mapa bat erakusten dute eta bertan ikus dezakegu informazioa, fidagarritasuna zalantzan egon badaiteke ere.

Osasuna ez ezik, birus informatikoen azken ordukoa ere arakatu daiteke *app* bidez; baita une honetan zein hegazkin dauden airean eta egingo duten ibilbidea. Berdin itsasontziekin, trafiko orokorrekarekin eta, nola ez, eguraldiarekin lotutako gaiekin ere. Aukera benetan zabala dago, interesa duena denbora luzez entretenitzeko moduan.



## Erabiltzaileen iruzkinak, kolokan

Internet bidez erosketaren bat egiterakoan, beste erabiltzaileek produktu edo zerbitzu horri buruz esaten dutenek pisu handia izaten dute. OCUK ikerketa egin du ekain eta abuztu artean eta salatu du iruzkin faltsuak antzeman dituztela Amazon-en, Tripadvisor-en eta Booking-en.

Espainiako, Frantziako eta Italiako 47.000 produkturi buruzko 6.360.000 iruzkin aztertu dituzte. Faltsutzat jo dituzte, adibidez, pertsona berak egun berean produktu askori buruz egindako iruzkinak. Horrela, Amazoneko kalifikazioen %8,38 egongo lirateke modu esanguratsuan aldatuta; Tripadvisorren %6,20; eta, neurri txikiagoan, Bookingen %2,1.

Azaldu dutenez, Amazoneko iruzkin positiboen truke opariak eskaintzen dira; bereziki, Txinan.

### 'Reviewmeta.com' eta 'Fakespot.com'

Web hauetan, Amazoneko produktuen *url*-ak jarri eta kalifikazioak *zuzenduta* ikus daitezke. *Amazon.com/.../es* erabili behar da, ez *Amazon.es*.

# Hau da Festa!

Uf, ui, ui, hori da kuxidadea! Peloziri urtebetetze-festa ospatzen ari da etxean, baina gonbidatuak ez dabilta oso txukun... Anabasa horretan zazpi ordulari aurkitu behar dituzu. Eta hori egin ondoren, margotu ezazu irudia zure gustura, batere kolorerik ez du-eta.





**Julen Garrido Caceres**

Aretxabaleta 3,720 kilo.  
Urtarrilaren 27a. Gurasoak:  
Belen eta Iban. Argazkian,  
Julen txikia lotan.

## Jaio da!


**Eman jaiotzen berri PUNTUAN eta Interneten.  
Deitu 943 25 05 05 telefonora edo zatoz  
Goienaren egoitzara.**

Asteleheneko 11:00ak arte jasotako jaiotzak bakarrik argitaratuko ditugu.  
Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.



Gurasoen premiak asetzeko gunea  
**guraso.eus**

- Gurasotasunaren gaineko iritzi artikuluak.
- Aisialdirako gomendioak.
- Adituei elkarrizketak.



# Udalaitz

Gipuzkoa etorbidea, 36 • ARRASATE • 943 71 18 70



Volkswagen

# T-ROC

